

GOIERRITARRA

2.500 aleko tirada

124 p.k. Ordizia —Goierriko euskaldunon aldizkaria— dohain banatzen da

GOIERRITARRA HILABETEKARIA.

22. zenbakia.

92ko Martxo

Poluzionatuko ote Txindoki martzia honetan?



GURE BARATZAK, KUTSATURIK?

- ❖ **ERREPORTAIA: EGOERA LARRIAN OMEN DA OLABERRI-BEASAINGO INGURUGIROA, KUTSADURA DELA ETA. ARISTRAIN S.A.-REN ERANTZUNA.**
- ❖ **ELKARRIZKETAK: ESTETIZIEN BATEKIN, LAZKAOTAR BAT ACONCAGUAN, AMEZKETAKO "BIXENTE" ATERPEA, LARRAIZKO TRIKITIXA, ATAUNGO SAGARDOTEGIA, GOIERRITARRAK MUNDUAN, SAN ADRIANGO BIDEA, BERTSOLARI GOIERRITARRAK...**

PERIODIKUAK

LAN KIDE AURREZKIA (Ψ) EUSKADIKO KUTXA

190
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

230.000
Milioiko Aurrezkia

Euskadiko
Kutxa



CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA

ORDIZIA
GAZTANDEGI
K O O P .



Jose Miguel Barandiaran Enparantza

Telefona (943) 88 94 20

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

22. zenbakia. 92.eko Martxoa.

Debaldeko alea. Tirada: 2.500ale. 1.900 harpidedun

Argitaratzailea: "Goierritarra Kultur Elkartea. Dorre-etxea, behe (Correos azpia). Tfna: 889612. 124 posta kutxa. Ordizia.

Zein da aldizkari irakurriena Goierrin? Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei. Izena emango dizu GOIERRITARRA iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa. Dei 889612 telefonora

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du. Era berean, Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du joandako bi urtetan eta aurrera goazen kurtso honetarako laguntzen zain gaude oraindik.

Dirulaguntzaren bat eman digute: Itsasondo, Idiazabal, Zerain, Arama,

Altzaga eta Lazkao Udalek.

Dirulaguntzak agindu dizkigute: (Hitzarmenen bat sinatzekotan gara). Zaldibia, Beasain, Ordizia eta beste zenbait Udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Koordinatzailea: Jon Mikel Arano.

Publizitate arduraduna eta laguntzailea: Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irastortza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Mikel Leunda, Jon Imanol Iturrioz, Eurne Garmendia, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna.

Kolaboratzaileak: Rosa Amundarain, Jexux Lete "Ibai-ertz", Ramon Ugalde, "Maizpi", Arantxa Goiburu eta Nekane Arantzamendi, Xabier Armendaritz, Xabier Gartzia, Joseba Salvador, Marian Iturrioz, Amaia Arteaga, Jon Belarra, Juanito Rubio, bertsolari goierriarrak...

Gure eskerrik beroenak: Gure "sponsorei": publizitatea ematen diguten guztiei. Goierriko Herrien Ekintzari, "Zure- Argazki" eta "Fotoetxe"eri, "Egunkaria", Lankide Aurrezkia eta "Argia"ri. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartzeko irrikitan zaudetenei.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa:

GERTU KOOP.E. (Zubillaga. Oñati)

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Kolaborazioa

Geure buruaren jabe, geu!

Martxoaren 8aren aurrean gaude berriro. Telediarrio eta tele-berri mordo arituko dira gutaz, emakumetaz, egun horretan. Milaka emakume aterako dira beren eskubideak aldarrikatzera, urtean zehar, 365 egunetatik askototan, emukume legez, gu zapaltzeaz arduratzen direnen aurka.

Bonbardaturik gaude ditzosozko 1992 urte ospetsu honi eman nahi izan dizkioten irudiez: Madril kultur-kapitala, Bartzelonako Joku Olinpikoak, Expo-Sevilla... Garbi asko dakusagu egunetik egunera, boterearen instantzietan panparroikeriaz erakutsi nahi duten "modernitate" hori nola geratzen den ezerezean.

Ezin gara mutu eta itsu gelditu hainbat eraso fisiko eta sikikoen aurrean: 1991.ean 6.000 (nahiz eta 600 salatu ziren bakarrik).

Herri bezala gure nortasuna nahi dugu bezala, emakume bezala ere gure nortasun propioa daukagulako. Askatasuna nahi dugu kolektiboki eta indibidualki. Lan munduan aukera

berdinekin sartzeko eta mugitzeko. Askatasuna ere geure gorputzari dagozkion erabakiak geuk hartzeko, ez beste inork. Askatasuna baita, nahi dugun harreman afektibo-sexuala aukeratzeko.

Pertsonak gara eta gizarteak horrela kontsidera gaitzan nahi dugu. Baina praktikan, errealitatean. Ez gero betetzen ez diren lege edo paperetan Europatik hasita eta Euskal

Herriraino gertatzen den bezala. Hori bait da, berdintasun itxura hori, benetako errealitatea estaltzen duen errealitate, gure buruaren jabe izateko itxen dizkiguna. Argi dugu gure eskubideak ez direla errespetatuko ez Europan, ez Estatu espainolean ezta ere Euskal Herrian agintean dauden instituzioetan.

Euskal Herri berri bat behar dugu. Euskal Herri bat non pertsonen askatasun indibidual eta kolektiboen errespeturako oinarriak ziurtatuko duena.

GOIERRIKO "EGIZAN"



Herrietatik Goierri. Non zer berri.

Orokorrak

Zerraila

sexu informazio eta orientaziorako zerbitzu munizipal bat da, Goierriko zortzi Udalen artean sortua: Ordizia, Beasain, Lazkao, Alzaga, Ataun, Olaberria, Zaldibia eta Itsasondo, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzarekin. Dohaineko zerbitzu bat da eta bere aktibitateak honakoak dira:

- ❖ Udal bakoitzean indibidual mailako asesoria eta informazio bulegoa eta telefonoa.
- ❖ Famili Plangintzarako Zentruen batera, sexu terapia zerbitzu bat sortu da, nahiz norbanakoa zein taldekoa.
- ❖ Sexu heziketa mailako monitoren formazioa, baita interbentzio zuzenak ere: ikasleekin, gurasoekin, jubilatuekin, e.a.
- ❖ Lana egingo da ere gazte talde organitzatuekin edota bildu nahi dutenekin ere.
- ❖ Beste zenbait ekintza populazio orokorrerako, hitzaldiak, heziketarako materiala sortzea, sexu jarrerari buruzko ikerketa, e.a.

Ordutegia:

Itsasondo: Astelehena, 3etatik 5etara, Udaletxea. Tfna.: 881170. --**Olaberria:** Astelehena 3etatik 7etara, 1. ordua, Udaletxea. Tfna.: 889193/881434. 2. ordua, Asoc. Pobl. Jose M. Aristrain, z/g: 880907. --**Ataun:** Astearte, 3etatik 5etara, Udaletxea. Tfna.: 881011. --**Zaldibia:** Astearte, 3etatik 7etara, Kultur Etxea. Tfna.: 888090. --**Lazkao:** Asteazkena, 3etatik 5etara, Udaletxean. Tfna.: 886408/886412. --**Beasain:** Osteguna, 3etatik 5etara, Kultur Etxea. Tfna.: 885904. --**Ordizia eta Alzaga:** Ostirala, 3etatik 6etara, Osakidetza egoitza. Tfna.: 881165.

Pediatrica Kontsulta

Beasaingo Osasun Zentruan, joandako abuztua ezkerotik, Pediatrica kontsulta bat ireki da. Kontsulta horretara Goierriko herri gehinetako haurrei atendituko zaie, 1978ko urtarrilak letik aurrera jaiotakoak izango dute atentzio hori jasotzeko eskubidea.

Kontsulta horretara joan ahal izateko "Cita Previa" deituriko sistema erabiliko

da. Horretarako 880759-888650 eta 888654 telefonoetara dei daiteke eguna eta ordua eskatzeko. Goizeko 8etatik arratsaldeko 17etara dago irekirik esandako zentrua.

Pediatrica kontsulta honetan prebentzioa, hazte kontrola eta gaisotasunen atentzioa izango dira, eta nahi izanez gero, orain arte bezala jarraitu daiteke herri bakoitzean dauden mediku eta praktikantearengana jotzen.

III. "Gerriko" Idazlan-Sariketa

- 1.- Lehiaketan edozeinek har dezake parte.
- 2.- Gaia: Goierriko dagokion edozein Zientzia alorreko Ikerketa-lana. *Oharra:* A. Herri mailako nahiz eskualde mailakoa izan liteke. B. Norberaren esku geratuko da ikuspegi historikoa, soziologikoa, inmigrazioa, industria, ekonomia... lantzea. D. Edozein garaitako lanak onartuko dira, baina garai jakin batzuen barruan mugatuak egotea gomendatzen da.
- 3.- Lehiaketarako euskarazko, eta ez euskarara itzultitako, lan orijinalak onartuko dira.
- 4.- Lanen luzera, gutxienez 80 Dina 4, gehienez 150ekoa, idazmakinez eta biko tarteaz izango da. Orijinala eta hiru kopia aurkeztuko dira. (Ahal duenak ordenarean egin dezala).
- 5.- Idazlan guztiek sinaduratzat lema bat besterik ez dute izango. Horri gehituko zaio kartazal bat, zeinaren kanpoko aldean idazlanaren izenburua eta lema idatziko diren, eta gainera bere barnean berriok dituen idatzia: lema, lemaaren egi-learen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa (dena makinaz).
- 6.- Lanak helbide honetara helaraziko dira, 1992ko Apirilaren 1.a baino lehen: Goierriko Euskal Eskola. III. "Gerriko" Idazlan-Sariketa. Elosegi, 16-1.a ezkerre. 20210 Lazkao (Gipuzkoa).
- 7.- Epaimahaia Goierriko Euskal eskolako Batzordeak eta Maizpide Euskaltegiak izendatuko dute. Honen erabakia atzera-ezina izango da.
- 8.- Mahaiakoek puntuok hartuko dituzte kontutan: Edukinaren zientifikotasuna (dokumentatua izatea): agertzen diren datu guztiak eta bakoitza nondik jasoa

izan den argi eta garbi azaldu beharko da. Lan bakoitza dagokion materiale grafi-koz eta bibliografiaren hornitua izatea. Euskararen erabileraren zuzentasun eta egokitasuna.

9.- Behin-betiko erabakia 1992ko Maiztaren azken ostiralean jakin eraziko da.

10.- Sariak Ekaineko 2. ostiralean eman- go dira; epaimahaiak hala erabakiz gero, saria(k) eman gabe gera daitezke/daitez- kelarik.

11.- Goierriko Euskal Eskola eta Maiz- pide Euskaltegiak saritutako idazlanak argitaratzeko eskubidea (beste ordain- ketarik gabe) izango dute; beraiek baka- rrik izan ere, epaia ematek bi urteren burura arte.

12.- Sariak: Lehena: 300.000 pta. Biga- rrena: 200.000. Hirugarrena: 100.000 pta.

13.- Lehiaketa honetan parte hartzeak, oinarri hauek eta aipatu epaimahaikoen erabakia onartzea dakar.

* *Oharra:* Edozein argibide behar izanez gero dei 160282 telefonora.



✓ Udal Administrazio, Elkarte eta ekintza antolatzaileei: Honen bidez, zera eskatzen di- zuegu: Udaletxe eta Ekarte horietatik atera behar duten edonolako ohar guztiak, jendeen jakinean jartzea komeni diren guztiak (ez kulturari dagozkionak bakarrik) bidaliezaz- kiguzuela GOIERRITARRAREN "Agenda", "Herrietatik Goierri" eta beste sailetarako.

Ohar horiei gustora egingo genieke leku aldizkari honetan (hilabetekaria da oraindik), ahalik eta azkarren bidaliko bazenizkiguzue. Hau da, gure aldizkaria hilabete bakoitzaren lehen egunetan ateratzeko asmoa dugunez, hilabete horretan ihardunean egongo diren ekintza eta abarren berri behar dugu. Hamar eguneko antelazioarekin jaso beharko geni- tuzke.

GOIERRITARRA, 889612, 124 p.k. Ordizia.

Lana

✓ **Euskarazko itzulpenak egiten** ditut. Denetarik. Gotzon Mintegi, Ordizia. 886477-ra dei, asteartetan ezik.

✓ **"Otsaila" itzulpen zerbitzua.** Edozein motatako testuak itzultzen ditugu. Lau hizkuntzatan: Frantsesa-Ingelesa-Euskara-Gaztelania. Gure helburua entresa, denda, eskola, instituzio publiko nahiz pribatuei itzulpen lan zerbitzu egokia eskeintzea da. Urdaneta, 18. Tlf.: 889325. 20240 Ordizia.

✓ **19 urtetako gaztea prest ikastola** eta gimnasia-zentruetan lan egiteko. Prestatzaile-fisiko tituluduna, euskaraz badakit. Gorka: 692383.

✓ **Neska euskaldun bat goizez, etxekolanetan/umezaintzan, lan egiteko** pronto. 650620 tfnoa.

✓ **Gazte bat prest edozein lanetarako.** Txofer-karneta badut. 722413.

Salmentak

✓ **Akordeioa salgai.** 884009 tfna.

✓ **Dian-6 bat salgai** (SS-O), merke: 886728 tfna.

✓ **Vespa-200 bat** (SS-V) salgai daukat. Ana: 164676.

✓ **Moby polita eta prestatua salgai:** 886728 tfna.

Etxebizitzak

✓ Logela alokatzen da. 888068-ra dei.

✓ Irakasle batek jendea behar du pisua osatzeko. Marian: 889094.

Urtebetetzeak:

✓ 1.806. urteko uztailaren 5ean jaio zen Zaldibian, Frantzisko Inazio Lardizabal euskal idazlea. Apaiz ikasketak Lazkaon, Burgos eta Madrilen egin zituen eta Zaldibiako erretore izan zen. Idazle zuzen eta zehatza.

✓ 1894. urteko urriaren 24ean jaio zen Lazkaon Gabino Murua, "Estanda" izenpetzen zuen idazlea. Nekazal munduan murgilduta ibili zen. Gabirian hil zen 1955.ean.



Erosketa-libreten kanpaina Beasainen

Kanpainak, Otsailaren 3an hasita herriko Loinatz-jaiak bitartean iraungo du, hau da, Maiatzaren 23-rarte eta kanpaina hau herriarrak erosketak euskaraz egitera bultzatzeko egiten da.

Herriko 7 janaridenda nagusietako bakoitzak buzoi bat izango du eta buzoi horietan euskaraz idatzitako erosketa-zerrendak sartu behar dira, atzekaldean norbere izen-deitura, helbide eta telefonoa idatzita dituztela. Horrela, bi sari jasotzeko aukera izango da:

- bata, buzoiak dagoen janaridendak ja-

ritako saria, eta

- bestea, Euskara-Batzordeak buzoi guztien artetik aterako den erosketa-zerrenda batentzat jarritako mikrohuinezko librea.

Hautatutako erosketa-zerrenda bakoitzean, ontzat emana izateko, gutxienez ere lau gauza-izen azaldu behar dute eta izen horiek, libretetan EUSKARAZ dagoen hiztegia erabiliz idatzita egon behar dute.

Sariak Loinatz-jaietan banatuko dira.

Goierriko Udalen Gizarte-Ongizateko zerbitzu batzu

Idiazabalgo Udaleko Gizarte-Ongizateko zerbitzuaren berri jaso dugu bakarrik, baina Goierriko bi mila biztanlelik gorako Udalen zerbitzuak igoaltsuak izaten direnez hemen doaz.

Zerbitzuaren arduraduna, herrian herriko Gizarte Laguntzailea izaten da, Udaletxetan egoten dena orohar egunero astelehenetik ostiralerara, goizez. Bere zeregina gizarte-zerbitzuen arloko baliabide eta prestazio desberdinei buruzko berri-orientabideak eskaintzea eta, halaber, horiek

Etxez-etxeko laguntza zerbitzua: Pertsona baten laguntza eskaintzen zaio eguneroko bizitzako eginkizunak betetzeko gai ez denari. Udal-araudiak erregulatzen du zerbitzu hau.

Udal-tasen ordainketarako laguntzak: Udal-araudiak erregulatzen du. Ura, estolderia eta zaborrengatik urtean

zehar ordaindutakoa bere osotasunean edo hainbatekoan itzuliaz pentsio txikiak edo Lanbidearteako Soldata Minimoaren inguruko irabaziak dituztenei. Etxebizitza berean bizi diren guztien irabaziak hartzen dira kontutan.

Gizarteratzeko gutxieneko dirusarrera: Hileroko soldata da. 65 urte baino gutxiago dituztenek eska dezakete. Etxebizitza berean bizi diren guztien irabaziak hartzen dira kontutan. Bizikide-kopuruaren arabera irabazi-mugak jartzen dira laguntza hau eskuratu ahal izateko. Adib: pertsona bakarra denean 33.000 pta. baino gutxiago irabazi beharko du hilean, bi direnean 42.900 baino gutxiago... Baldintza: 3 urtez

errolatua egotea EKA-n eta 6 hilabete gutxienez herrian.

Gizarte larrialdietarako laguntzak: Etxerako tresnak, errentak, e.a. ordaintzeko dirulaguntzak dira. Edozein

personak eska ditzakete. Beste baldintza batzuren artean hemen ere etxebizitza berean bizi diren guztien irabaziak hartzen dira kontutan: pertsona bakarra denean 49.500 pta. baino gutxiago irabazi beharko du hilean, bi direnean 64.350 baino gutxiago...

Minusbaliatuentzako dirulaguntzak: Errehabilitaziorako, asistentzi espezialdurako, errekupeazio profesionalerako, e.a.-etarako dirulaguntzak.

Gizarte ongizateko fondoaren pentsioak: Hilero ordaintzen den pentsioa da (23.590 91n). Eska daiteke:

a) Elbarritasunagatik, hau da, 65 urte baino gutxiago izan eta lan egiteko gai ez izateagatik. b) Zahartzaroagatik: 65 urte edo gehiago izan eta beste inolako pentsiorik jasotzeko eskubiderik ez izateagatik. Nahiz batean, nahiz bestean baldintza ekonomikoak daude.

Pentsio ez-kontributiboak: Gizarte Ongizateko Fondoaren parakoak dira. Desberdinak dira bai zenbatekoei, bai baldintzei dagokienez. Bakoitzaren egoeraren arabera aukeratu beharko da bata ala bestea.

ORDIZIA/BEASAINGO GOARDIAKO FARMAZIAK

Martxoak: 1-2: Launaga; 3: Cuesta; 4: Arriola; 5: Urbizu; 6: Atorrasagasti; 7-8: Cuesta; 9: Azpilikueta; 10: Jauregi; 11: Launaga; 12: Cuesta; 13-14-15: Arriola; 16: Urbizu; 17: Atorrasagasti; 18: Azpilikueta; 19: Jauregi; 20: Launaga; 21-22 Urbizu; 23: Cuesta; 24: Arriola; 25: Urbizu; 26: Atorrasagasti; 27: Azpilikueta; 28-29: Atorrasagasti; 30: Jauregi; 31: Launaga.

IDIAZABAL KIROL ELKARTEA

Mendi saila: Martxoak 14-15: Bardeak; 29: Beriain-San Donato.

Legerretako Zinema: Martxoak 8-9: "Agarralo como puedas 2-1/2"; 15-16: "Suburban Comando". 22-23: "Atraco a falda armada". 29-30: "Bingo".

Patxi

ERRETEGIA

Tfnoa: 80 15 75

LIERNI

LEIAR

KRISTALDEGIA

Erakin eta merkatalguneen
Kristal ezarretzea - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70
BEASAIN

UTOESKOL ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN




AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96
GIPUZKOA



MUJIK LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN

IBAI - ONDO



ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta Erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

BIOK, C.B.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

Besteek esana

Herri-prentsa

Gaur egungo munduan, informazioa botere dela esan ohi da, eta horrela izango da seguraski, majo saiatzen bait dira kontrolatzen motaguztietako agintariak. (...) Prentsa lokalak plataforma ezin hobe eskain dezake gure herria sarri askotan hain traumatikoki zatikatzen duten pentsaera eta jokabide kontraerriak plazaratzeko eta sektore ezberdinak elkarrikeratzen bidean jartzeko; hau, hain zaila den orekari eusten asmat-

zen bada, noski. Ezin dugu geure buruaren garrantzia gehiegi baloratu, baina bere mailan —maila apalean, nahi bada— prentsa lokala baliabide inportantea da gizarte-bizitzarako.

*"Arrasate Press",
ale berezia*

Letrango San Juango ermitta

Azken egun hauetan San Juango basilizaren teilatuaren konponketari ekin diote igeltseroek. Orain arte toldoz estalirik izan da teilatu hau, kazkabarrak

eragindako kalteen ondorioz. Lehenagotik ere konponketa baten beharrean zegoen basiliza eta kazkabarrak erabat desegin zuen. Hala ere basilizaren nagusia den Lezama de Legizamon sendiak ez zuen neurririk hartu eta teilatuan zeuden toldoak beranduago jarri ziren, barrua erabat kalteturik zegoenean. Itsasondoko Udalak zenbait gestio egin zituen basilizaren nagusiekin konponketari ekiteko baina azken hauek ez zuten jaramonik egin. (...) Antza denez, Diputazioko arduradunak familiarekin kontaktuan jarri eta gutxienez teilatua konpontzera behartu ditu.

J.I., "Egin", 92-I-31.

V. "Elorri" Bertso-paper lehiaketa.

Elorri Kultur Elkartek bosgarren aldiz (Segurako) herritarren arteko Bertso-paper Lehiaketa antolatu du. (...) Lehiaketa honetako antolatzaileek aurreratzen dutenez, aurten ere parte hartze zabala izan du. Hamalau urte bitarteko gaztetxoek, "Herriko Plaza" gaiaren inguruan prestatu dituzte bertsoak. (...) Helduen taldean berri, "Morroiak oroitzuz" gaiari buruz aurkeztu di-

tuzte beraien bertsoak. (...) Gogoratu epaimahaia osatzen dutenak herriko bertsolaria den Joxe Intxaustiz gain, Iñaki Murua, Eusebio Igartzabal eta Mikel Mendizabal direla.


*"Akullu", "Egin",
91-I-22.*

Enirio Aralar

Joan zen urtean, akordio bat izenpetxea mahairatu zuen Aldundiak, mendi horietan egin beharrezko lanen egitasmoa gauzatu ahal izateko, Aldundiaren diru laguntzaz. Partaidetza duten 15 udalerrien oniritzia izan zuen egin zen akordioak, aurrez izendatutaako burubideak hauek zirelarik;

denborapasagarri eta kulturgune bezala eratu, abelgintza hobetzeko prestatu eta mendiaren izakera berreskuratu eta zaindu. Akordio horren arabera, 4 urtean zehar, helburu horiei dagozkien baldintzak betearazteko bideak eta neurriak hartu ere bai. Aldundiak bere aldetik, kastuen %80 eta behardiren teknikoak jarriko ditu. Aurtengo ekintzen egitasmo horren egilea eta arduradun teknikoa Iñaki Aizpurua da eta lanen aurrekontua 92 milioi.

Zorion, "D.V.", 92-I-12



Erosle Ahizpak

*Aukera osoa
Zure etxe ondoan*

Nafarroa Etorbidea, 45 BEASAIN

OSASUN

Belar eta dietetika denda
Naturopata
eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 - Tfnoa: 88 61 14 - ORDIZIA

LAZKAO

Irakaskuntza Ertzainen Eguna

LAZKAO, DV
ZORION

Santo Tomas eta San Joan Boscoren egunak direla medio, Goierriko ikastetxeak elkarturik ospatzea pentsatu dute, zenbait kultur ekintzez, batez ere lehiaketazko ekintzaz horniturik aspakizun hori. Aste hau zehar banatu dira literatura eta fotografi lehiaketetako sarriak. Partaidetza duten ikastetxeetan (Beasaingo Lizetako, Beasain eta Ordiziako Institutuak, Laz-

*A ze
flaxa!*

❖ Goierriera bai ala ez?

"Eskualdekide" preziatuok:

Lehenik eta behin, jaso ezazue nere agurrik be-roena, zuen ahaleginez honen aldizkari atsegin eta interesgarria gureganatu duzuelako. Edukinez hobegaitza da benetan. Ezer kritikatzekotan, da-rabilzuen hizkuntza-aldaera horren bi alderdi ho-be daitezkeela esango nuke:

Batetik, aldizkaria Goierriako bakarrik denez —nagusiki bertako irakurleei zuzendua, alegia—, bertako euskarak (batik bat hitz eta esamolde-ek) behar luke nagusi; beste bailaretako euskara, bertakoak ez duena hartzeko soilik behar litzate-ke erabili (Euskaltzaindiak euskararen batasune-rako emandako arauak ere kontuan hartuz, nos-ki).

Zoritxarrez, Goierriko euskara nahiko galdua baita baserrietatik kanpora. Beraz, uste dut zuen aldizkaria bitarteko egokia litzatekeela jendeak "goierriera" aintzat hartu eta galdu ez dezan. Gainera, herrikoiagoa ere izango litzateke. Ildo horretatik doa, hain zuzen ere, bigarren kritika.

Zenbaitetan ikusi dut, herrikoi izan nahian gaz-telerara jo dela. Horri, ordea, herrikoi-itxura ez, baina ezjakin-itxura dario nere ustean: ematen du euskararen baliabideak ezagutzen ez dituelako, erdarara jotzen duela idazleak.

Dena dela, ez da nere asmoa zer-nola egin be-har duzuen agintzea, aldizkaria hobetzeko bideak bilatzea baizik. Eta, soziolinguistika piska bat ikasi dudanez, arazo bat somatu dut gure eskual-dean: lagunarteko euskara —goierriera— galtzen ari den heinean, gaztelera ari dela haren lekua hartzen. Horregatik, goimailako euskara, euskara standard-a (batua) lantzen duen nahiko komuni-kabide egonik, zuei kaleko euskara lantzea da-



gokizuela iruditzen zait.

Bueno, sermoi ederra atera zait azkenean! Kritikak ez gaitzotzat hartu, mesedez; badaiteke okerrak izatea, baina hobe-beharrez egin ditut.

Xabier Armendaritz (Beasain)

❖ Beasain euskal herria al da?

Horixe galdetu genien gero buruei zenbait adiskidekurtezahar gauean. Izan ere, mapak ba-dela dioen arren, taberna-zuloetako altabozetatik zetozen hots eta oihuakentzunda, bazirudien Madrid edota Valladoliden geundela.

Argi gera bedi ez dela gure asmoa beste kultu-rak eta berenmusika gutxietsi nahiz gaitzestea. Baina uste dugu, euskalkulturari zor zaion begi-rune eta arreta eskatu behargeniekeela taberna-riei ere. Ez bakarrik bertako kulturadelako: baita tabernatako bezero askotxo (Beasaingo biztanle-

en erdia, Goierrikoen laurden bat gutxienez) eus-kaldunak garelako ere.

Beste asko ez direla, esango du behar bada norbaitek; eta euskaldunotako dextentek gustora entzuten duela erdal musika. Eta ez du gezurrik esango. Baina, kontxo, gerok behintzat, ezge-nuen euskarazko abesti bat bera ere entzun gau oso-osoan. Bada, ba, horrelakoetarako aproposa den euskal musikaalirik, zahar edo berri: dela trikitia, dela rock-a, dela folk-a... (hor ditugu, entzutetsuenetako batzuk bakarrik aipatzearren, Tapia eta Leturia, Negu Gorriak, Oskorri,

Hertzainak, Pantxoa eta Pello, Su ta Gar, Laja eta Landakanda, Zarama, Mikel Laboa, M-ak...). Eta bada gureartean, oraindik, euskarazko musi-ka ere maite duen jenderik, ia komunikabide guztietatik datorkigun erdal-musika zaparrada gora-behera.

Ziur gau hartan euskal abestiren bat edo beste jarri zutela, bai, nun edo han; izango zen euskal kultura aintzat hartu zuen tabernari bakarren bat. Euskal kulturak ez dirudi, ordea, tabernariei zo-rraren zati haundiena barkatzeko bezain indart-su. Horregatik, haxe da plazaratu nahi dugun eztabaida-gaia: zergatik ez diegu euskaldunok tabernariei zor hori ordaindu dezatela eskatzen? Zergatik ez diegu euskarazko musika maizago jartzea eskatzen?

Beasaingo laguntalde bat

❖ Rugby zelaia. Ingurune babestua!

Hemen Ordizian, Kirol honetan aritzen garen guztiok horrela sentitzen dugu gure burua, astero astero, eta beraien kabuz, bisita egitera etortzen direnean orlegiz jantzitako ustezko "zuzentasu-

CARRION

ELEKTRODOMESTIKOAK



BANATZAILE OFIZIALA

Plaza Nagusia, 5
44 Posta Kaxa

☎ (943) 88 13 33
20240 ORDIZIA

YOLANDA

Dekorazioa
Pintura tailerra
A. PALACIN



Urdaneta, 21
Tenda: 88 86 02 Etzea: 88 18 44

ORDIZIA



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxes: 880872. 20249

ITSASONDO

naren babesle" diren hoiek, beraien Patrol eta Land Roverren aztarnak gure zelaia osotasunean ereinez. Lasaitasun osoz, egunez edo gauez, eta beraien koartelaren zaintetxola bat gehiago izango balitz bezala, jauntxo hauek, beraz egoera txarrean dagoen zelaitik paseatzen dute beraien burua, pentsa ezazue zein egoeratan gelditzen den zelaia,

batez ere lokaztua denean, Goardia Zibilaren bi edo hiru ibilgailuk handikan beraien ohizko errondak egin ondoren.

Gu kirola oso era serioan hartzen dugun lagun talde bat gara, pentsa daitekeen era amateurren-an, hau da, guztia geuk ordaintzen dugu. Ordizia, hamar mila biztanle dituen herri bat izateko, lehen taldea Espaini osoko Lehen Mailan du. Apaltasun osoz ere zera esan dezakegu, igandero, estatu osoko taldeak etortzen direnean (Madrid, Sevilla, Barcelona...) lotsa haundia sentitzen dugula gure zelaia dagoen egoera kaxkarra erakusten diegunean. Nazkagarria, hitz gutxitan laburtuz. Orain artekoan gure Udaletxeko eta bestelako arduradunek jaramonik egin ez badiote ere.

Gure Rugby Stadium izugarria, imajinatu daitekeen erabilera ezberdinenak izan ditu: auto aparkalekua, helikoptero aparkalekua, globoak eta abar. Guzti hau udaletxearen onespenerekin, eta orain gainera, Goardia Zibilaren ibilgailu berezien frogaleku bezala.

Lehen nioen bezala, zein aurpegi uste duzue ipintzen dutela estatu osoko jokalaria eta epaileek esaten diegunean lurrean dauden zanga eta marka guzti horiek, benemertitako kideek

autoz emandako paseoen etekina direla?

Eta, Rugbyko makilen ordeztutako futboleko atak izango balira? Berdin jokatu zutela pentsatzen duzue? Eta gure mandatariek? Eta Goardia Zibilek? Eta beste guztiak?

Beno, Rugby-a eta kirola kultura direnaren kontsueloa geratzen zaigu, baina parte hartzen dugunona soilik. Beste guztiak frogatu beharra dute.

Ez dakigu eskutitz honek zerbaite konponduko duen, Udaletxeko, Foru Aldundiko, Kiroletako eta seguritateko arduradunek irakurriko duten. Hala bada, merezi zuen.

Ah! Gure "Babesleentzat" azken ohar bat. Zelaian sartzen jarraitu behar baduzue zuen Patrolekin, eskertuko genizueke han alboan dugun alperre engantxatu, eta bien bitartean, zelaia



berdintzen badiguzue.

Zeren azken finean, babestuak sentitzen gara!!

Azio Araña. Ordiziako Rugby taldea.

❖ Olentzerori buruzko hausnarketa?

Arriskutsua. Oso arriskutsua Xabier Gartzia jaunak Olentzeroren inguruan egin berri digun hausnarketa. Bere ustez, Olentzeroren benetazko tradizioa hankaz gora jartzen ari da eta beharrezkoa ikusten du "erreflexio zintzo" bat egitea.

Jarraian transkribatu egingo ditut berak esandako batzuk, erabat txundituta utzi bait ninduten eta interesgarri bait deritzot erantzuten hasi aurretik. "Politikaren zurrumbilo nahasiak eman dion egokipen bortitza", "zer bekatu demonio erantsi nahi diote Jesusen berri ematera etorri denari, barrotepean kaleratzeko?", "Gabon Gaua ez da manifestazio eta kalapitetarako (erdaraz camorra) unerik egokiena, urteak beste 364 egun baditu eta", "inork ez baitu eskubiderik erlijio baten festamoduetan muturrik sartu eta errotoz erauzteko", eta antzekoak.

Xabier, norbait txerri-belarriak eta txahal-muturrak nahasten ari bada, zeu zaitugu. Benetazko tradizioa berreskuratu behar bage-nu, zuk diozun bezala, konturatuko ginatke Olentzero ez zela "berri on bat" ematera etorri, baizik eta juxtu alderantzizkoa. Ikerketa historikoetan oinarrituz egin ditzakegun interpretazioen arabera, kristautasunaren lehen inposake-

ten adierazgarri baten aurrean aurkitzen gara. Olentzero beldurtuta eta izututa jaitsi zen Aralartik, Nafarroa aldetik zetozen kristau hai-ze berrietatik ihesi. Une horretan desagertu ziren jentilak, gure lurretan bizi ziren artzai paganoak, gure arbasoak.

Baina noski, denborak aldatzen doaz eta ohi-turak ere bai. Are gehiago, ohitura mantentze-ko modu bakarra garaiean garaiko egoerara egokitzea da. Zergatik uste duzu mantendu de-la orain arte Olentzeroren ohitura? Elizak bere modura egokitu duelako eta jentilen heriotza iragarri beharrean, "Jesusen jaiotza" iragartzen hasi zitzaigulako. Eta hori onartu egin dugu. Ez larritu, orduan, azkenaldi honetan Olentzerok jasan dituen azaleko aldaketak direla eta, azken finean egokipen txiki batzu besterik ez baiti-ra.

Zuk onartu egin duzu funtsezko eta oinarritz-ko aldaketa, Elizak eragin ziona, beraz onartu orain aldaketa zirkunstantzial hauek. Ez dugu "rigor histórico" deritzona ahaztu behar, noski, baina ez gaitezen purista bihurtu. Edota ez al dute eskubiderik beren etxean hain maite eta barrotepean dituzten senitartekoak Olentzeroren bitartez sinbolizatu eta gogorat-zeko? Ez larritu, Olentzero ongi dago, barrote-pean baina bere horretan. Azken preso euskal-duna gartzelatik ateratzen den une berean ken-duko dizkiote barroteak Olentzerori eta geratu-ko da libre. Agur bero bat.

Joseba Salbador

("Egin"-eko Tolosako kronista)



MARTINEZ

Jatetxea

Santa Maria, 10 - 1. Tel. 88 06 41 ORDIZIA

J. A. MUNDUATE
ASEGURU AGENTZIA

Hirigoin, 12. Tfnoa: 88 86 20 Faxe: 88 91 18
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Zertaz mozorrotuko zara iñauteriotan

?

(Ordiziako Milagrosa
Ikastetxeakoak)



**Iñaki Arrizabalaga, 6.
kurtsoa, 11 urte.**

Aurten semaforoz mo-
zorrotu behar dut nik.
Andereñoak hiru jantzi
ezberdin erakutsi zizki-
gun eta horien arteko
aukera erraza izan zen;
alde batetik, guk egite-
ko modukoa iruditu zit-
zaigulako eta bestetik,
gutxi ikusia delako; ho-
rrela pentsatzen dugu
behintzat. Astearte
arratsaldean egiten du-
gun ibilaldia gustokoa
dut, baina nahiago nu-
ke egun osoan jai edu-
kiko bagenu, horrela
Tolosara joango nintza-
teke.

10 Goierritarra



**Estibaliz Clemente,
5. ikasturtea, 10 urte.**

Aurten ere urtero be-
zala mozorrotuko naiz.
Orain arteko jantzien ar-
tean gustokoenak
hauek izan ditut: egip-
zia, pirata, ipotxa, e.a.
Urte honetan, berriz, se-
maforoz jantziko naiz.
Hasieran ez zitzaidan
hainbeste gustatu, bai-
na gelan bat egin ge-
nuen nola gelditzen zen
ikusteko eta orduan bai,
konturatu nintzen erra-
za zela egiteko eta poli-
ta gelditzen zela.

Ihauteriak jai onak di-
ra niretzat, batez ere
jende asko mozorrotu
eta pozik eta alai aterat-
zen delako kalera. kalez
kale ibiltzea.



**Miren Auzmendi,
13 urte, 8.
ikasturtea.**

Orain arte, gelako gu-
zatiak andereñoarekin
batera jantzi berdina

aukeratu izan ohi dugu,
baina oraingoan bakar-
ka nahiz

taldeka, nahi dugun
disfrazatuko dugu.
Beste bi lagunekin el-
kartu eta ipotxez mozo-
rrotzea erabaki dut.
Niretzat, jantzi hau poli-
ta da eta horrezaz gain
egiten erraza. Jantzera
hau oso arrunta da,
praka motz batzu be-
launetik behera, alkan-
dora gerritik belauneta-
raino eta azkenik, buru-
tik gerrirainoko txano
luze bat. Ongi pasa!



**Jabier Kerejeta, 8
urte, hirugarren
ikasturtea.**

Zertaz? Afrikako tribu
bateko gerrero beltzaz.
Andereñoak galdetu zi-
gun ea gustatzen zitzai-
gun disfraz hori eta guk

baietz erantzun genion.
Izan ere, aurpegia belt-
zez margotzea gustat-
zen zait, honela jendeak
ez nauelako seguraski
ezagutuko eta gainera
lantza eta ezkutua era-
man behar ditugulako.

(Beasaingo
Alkartasuna Lizeoa)



**Alazne Elorza
Beitia, 5 urte,
beasaindarra.**

Pailasoz disfrazatuko
naiz. Erropa nere lehen-
gusu batek eman dida-
lako. Aurpegia pintatu-
ko dit nere amatxok.
Baina ez dut tontoarena
egingo kalean. Tolosara
joango naiz
Karnabaletan, nere le-
hengusuaren etxean
bazkaltzera.

KORTA mariskeria

Etxeko haztegiak

Menu Berezia (2 pertsona gutxienez)

- ☐ Langostinoa ☐ Txangurroa
- ☐ Almejak ☐ Misera -
- ☐ Añares cava edo Antina horratzardoa -
- ☐ Postrea, kafea likoreak-

PREZIOA: 3.500 pta. (+ BEZ)

GABIRIA

Tfnoa: 88 71 86

- **E**statu Espainolak 36 milioi eman ditu kazkabarrak kalteturiko jende txiroenentzat. "Gernika berria", "Ametrailatua izan dela dirudi Goierri-beheak", "Istituzioek laguntza osoak emango dizkigute", e.a. ekarri zuten 90.eko paperek. Zenbat milaka milioi galdu ziren?

- **B**easaingo Senpere merkatari-zen-truko "Super BM" istekotan ote dabilen. Hots txarrak. Beste porrot bat, Etor argitaletxearena. Bertsolaritzaren Historia erosi duena gabe geratuko ote?

- **"Clenbuterol"**aren eskandalua haitzatu da oraintsu. Iturri fidagarriak di-tuen harakin batek esan digunez, ber-tako ganaduzaleak beren kalitate one-neko ganaduak ezin saldurik dabil-tza ezin dutelako kanpoko salneurriekin konpetitu. Kanpoko merkeago erosi liteke (kalitatez dudakoa edo adul-te-ratua...), baina prezio berean saltzen zaigu kontsumitzaileei "Eroski" eta horrelakoetan. Gainontzean, konfi-dantzazkoak ditugu oraindik hemen-go harakinak

• Ihauteriak

- **J**akina den bezala, Goierrik ez du tradizioz ihauteriak ospatzeko. Tolosaldera jotzen da, izan ere. Garai batean bertako ikastetxeen artean ospatzen zen ihauteria, baina egun, ikastetxe bakoitzak bere aldetik jo du. Honenbestez, jakitera ematen digute-nez, aurten ere Ordiziako Milagrosa ikastetxeko ikasle eta irakasleak ber-tako kaleetan jai-giroa zabaltzeko as-moz dabil-tza astearte arratsaldez. Eskulanetako orduetan jantziak egiten



dituzte umeek, azken ikutuak guraso eta irakasleen esku. Ume txikiak lan txikiak,...

- **L**azkaoko Udaletxea Batzoki bihurtu nahi duela PNVk esan berri du udalerri horretako HBk.

- **"Apolo"**, Martin Apaolaza itsasondoar preso 3. gradura pasa dute eta kalera irteten da. Lana ba omen du eta Martutenera joan beharra ere bai.

- **ETBko "Herriko Plaza"**ra, Beasaindik joandako partaideen ize-nak hauek dira: Benito Aiestaran, Jose Anjel Irastorza, Iñaki Albisu, Juan Mari Aiarza, Begoña Bueno, Ederne Albisu, Idurre Eskisabel eta Loinaz Agirre. Ordiziakoak, berriz, Asier Zubeldia, Pedro Garzia, Kleto Esnaola, Igor Galparsoro, Arrate Leunda, Eli Garzia, Esther Aranburu, Nerea Martinez eta Mikel Garmendia. Beasaingo taldeak irabazi zion Ordiziakoari, 770 / 680 puntuazioare-kin. Saritzat Otsailaren 22 eta 23 Errioxara egin zuten bidaia izan zu-ten.

- **"Ezkio"** Aldizkaria sortu da Beasaingo Ezkiaga auzoan (Porteri-al-

dea). Euskal produktzioz ez da naba-ri oraingoz eta elebitasuna, berriz, it-zulpenekoa. Erdaraz pentsatu eta egi-na datorrela dirudi, inguruotako beste zenbait gauza bezala. Andoainen ere bada halako beste bat. Ea zer datorki-gun...

- **P**rentsa lokalak etorkizun oparoa du. Geroztik aldizkari gehiago sort-zen ari dira Euskal Herrian. Arrasateko Kongresuan garbi geratu zen herri-prentsak arrakasta badu, za-bala eta gertukoa den neurrian duela. Dirulaguntzak eta publizitatea dira sostenguak. Publizitate asuntuan, zu-zena bezalakorik ez dagoela, herri-koia, katalanek ziotenez.

- **A**taungo "Nondik" aldizkariak 15 urte bete ditu. Anai-arteko guda gai-nekoa eta Barandiarani buruzko mo-nografiko entzutetsuak egin ditu bere garaian. Dohain banatzen dituzte he-rrian urtean bi zenbaki, 400 ale. 500.000 pztako kostua du zenbaki ba-koitzak eta bertako Udalak 60.000re-kin laguntzen omen du. Publizitaterik ez, lujozko produktua, OARGIren ba-besa beharko du berriz ere.



Zer gerta liteke...

...Arkarteko zubiarekin?

Ordiziako Monografia Historikoa dioenez, 1538. urtean eraiki zen Arkarteko zubia, harri-landuz eta kareez. Beldur ginen, Itsasondo-Arama-Ordiziako autobidea egiten hasi zirenean, ez ote zuten pikutara botako bertako monumen-tu xume eta antigoalenetakoa. Baina orain ere ez dago hobeto: asfaltua egiteko faktoria bat altxa zuten halako batean eta burni eta materialez josirik dago alde hura. Hor dago argazki-salaketa. Hormigoi-aroak izango dira hauek, baina Udalak eta Usabiaga J.ak kontutan izango al dutel

ANA KRISTINA OLANO, LAZKAOTAR ESTETIZIEN GAZTEA:

"Estetikan, ez dago soluziorik ez duen arazorik"

*Orain dela urte gutxirarte
estetikari ez zaio garrantzia
handiegirik eman.*

*Garrantzitsuena aurpegi-
garbiketak eta depilazioak
zirela zirudien. Emakume
gehienek uste zuten
edergintza zentruetan
garbitasuna baizik ez zela
eskaintzen. Beste zerbait
esan digu Ana Kristina
Olano lazkaotarrak.*



"Zure Argazki"

Gaur egungo gizartea gero eta mentalizatuago dabil gorputzaren kultu eta edertasunaren atzetik. Kezka hau sortzeko unean komunikabideek jokatzten duten papera erabakikorra da. Irudi guztiz mirresgarrien bonbardaketek gizabanako perfektuaren moldea edertasunean finkatzen dela pentsarazi eta sinestarazi digute.

Nolabait, hori lagungarri izan dezakegu, kirola egitera, erretzeari uztera, orekaz jatera eta estetizistengana joatera eragiten bait digu. Guzti hau dela eta jo dugu Beasaingo Senpere zentru-komertzialean oraindik ez asko Lazkaoko neska gazte batek, Ana Kristina Olanok, ireki duen edertasun- zentzura. Estetikak ere badu bere etika bat.

Berak aitortzen digunez, orain dela urte gutxi arte, beharrezkoena ere ez zen egiten alor honetan. Estetikak zeukan garrantzia bakar garbitasunean zetzan, sarrreran esan bezala. Gaur egun edergintza-zentru oso kualifikatuak daude eta, al-diz, aurrerakuntza asko dauzkate arazo bakoitzarentzat, tratamendu berezi eta egokiez horniturik daudelarik.

Adibidez, "hainbeste emakumeen arazoa dena, zelulitisa, arazo hori gainditzea ez da lan erraza. Arazo hormonal eta zirkulazio txarrekin eragiten duten zelulitisa gainditzeko, lehenengo zelulitisaren gradua aztertu behar da eta dagokion tratamendua ezarri: drenaia linfatikoa, izerdi-garriak, mesoterapia, estimulazioa.

Kabinako tratamendu hauez gain, bezeroak gertutik jarraitu behar dio bere bizimoduari, hala nola, elikagai garbiak jan, kirol piska bat egin eta gaur egun hain arrunta den "stress" a ere alde batera utzi behar da, ahal badugu **b e h i n t z a t**".

"Deskonektatu", dio Ana Kristinak.

Estetizienek ez dute izaten soluziorik ez duen arazorik. Eskuetatik ihes egiten dieten arazo batzuetaz arduratu ahal izateko, mediku batzuekin elkar lanean aritzen dira estetizista batzu: Ana Kristina, akupuntorea den Jose Anjel Larra+aga medikuarekin aritzen da lan horretan. Aipatu dugun zelulitisa kentzeko mesoterapia tratamenduan oinarritzen dira. Era honetan, mediku honek injekzioen medikazioa ipintzen duen bitartean, A. Kristinak plaka pizkarri-estimulatzaileak jartzen ditu.

Estetika alorrean, badu zirujau batekin lanean hasteko asmorik. Gehienbat, izter eta sabelaldetik grasa kentzeko egiten du jendeak kirurjia. Baina beste hainbat arazo kentzeko ere erabiltzen da zirujua estetikoak: zimurrak direla, garatxoak, berrizak, begieketako poltsak, bular handitze/txikiagotzeak...

Eskaintza guzti hauen aurrean, norberaren gorputza zaintzeko aukera gehien duena, edota gehien probetxatzen duena beinepehin, lan egiten duen emakume gaztea da. Arruntenak diren depilaketa, liftin eta aurpegi tratamenduez gain, zer-

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria.....Tlf.....

Ordiziako 124 Posta Kutzara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER

bait gehiago egiteko aukera ere izaten dute: gorputz- tratamendu edo eta tratamendu osoak, solariuma, maisaiak, e.a.

Udaberri aldera, ezkontzak ugaritzen direla, eta emaztegai asko dira makilajea hartzera joaten direnak beraien aurpegietan zuzenketa batzu egitearren. Eta lortu ere, gauza miresgarriak lortzen omen dira.


Silikonaren arazoa aipatu bezain pronto, badu bere munduan logikaz aipatzen den esplikazioa prest ahoan estetizien lazkaotarrak, amerikarrak beste produkturen bat lortu dute aidanez, silikonari buzur egin den prentsa kanpaina, fama txarra emateagatik garantia batzu badituen produktu horri

Eta azkenik, gizonezkoak eta estetika. Gizonezkoak, lotsak eraginda-edo, gutxiago dira edertasun zentruetara agertzen

direnak, baina gero eta gehiago dira lotsa alde batera utzi eta beren gorputza zainfazeaz arduratzen direnak, A.K Olanoren hitzetan.

Azkenaldi honetan edergintzarako zentru asko ireki dira, agian gehiegi eta guzti dira, baina lana ongi eginenez gero, jendea gustora itzultzen da aidanez, bere nahiak beteko dizkietenaren esperantzan.

M. Aramendi
N. Altuna



Estetika guztia

SENPERE ZENTRU KOMERTZIALA
88 15 50 Tfnoa.
BEASAIN

merka P21 dendak



ASEGURU AGENTZIA
CARLOS RODRIGUEZ
CARDESIN

Goierrri, 12- Tfnoa: 16 14 15
P-21 Komertzialgunea, 2. oina

ORDIZIA



TXALUPA ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07

ORDIZIA



MAIKA

Jostundegia eta oihalak

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA
Tfnoa: 88 91 59 - ORDIZIA

Eraikuntzak

P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

IBAÑEZ

- ✓ Kafetegia
- ✓ Izozkitegia
- ✓ Gozotegia

C/Goiherri. Poligono 21-2º
ORDIZIA



- Telf. 16 12 59



BRICORDIZIA

- BRIKOLAJEA
- ENMARKAKETA
- Eta zure ideiak ...

Goierrri, 21 TEL. 160416 **ORDIZIA**

Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik
OGITARTEKOAK
BAZKARI eta
AFARIAK

880035



Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Polligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



Zure Argazki

Urdaneta 18 • Tel. 889325 • 20240 ORDIZIA

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...
Tfnoa: 88 89 53 ARAMA

**Kirol jantzieta
espezialistak**



Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



Gudarien Etorbidea - Tel. 883960
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



JATETXEA

DONOSTIA

T 885255

ALTZAGA

Itsasondo Ordizia

GASTEIZ

* Karta Zerbitzua

* Lan menuak

**RUBIORENA
JATETXEA**

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60
20200 BEASAIN



SEGURO TALDEA
ZURICH-VITA-HISPANIA

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA

ESTEBAN LASA, 7-1º Tfnoa: 88 88 92
20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxa: 88 88 92

Gure baratzak, kutsaturik?

Aspaldian gure baratzetako kutsadura dela eta kezkaturik zeudenez, bertako lur puska batzu analizatzea erabaki zuten Urrestillako Amaia Arteaga eta bere pare bat lagun alemaniarrek. Emaiza kezkagarriak "D.V.-Zabalik" eta "Egin"en argitaratu ziren iaz.



FOTOETXE

Amataren testa da, nahiz eta "Aristrain"ek jarri, jarri duen ke-depuradora, —ikerketa honen ondoren (tazko Udaberria) eta ez duen hatnbeste kutsatzen, elementu metaliko toxiko horiek lurretik desgertzeko denbora asko pasatu beharko duela. Kaltea egina dagoela. Jendeak ez sinistu arren kutsatutako letxua bat edo baratzki batzu ja-teagatik zer gerta dakigukeen

"Alemanian, lan horietan aritzen den lagun baten bitartez, bertako laborategi batetan gure baratzako lur kantitate bat analizatua izan zen, eta honekin batera, baliagarria izango zelakoan, beste bi baratzetako lur kantitateak bidali genituen. Gipuzkoako Goierrialdean kokatzen dira aukeratutako hiru baratzak: bata "Aristrain" fundizioaren aldamenean dagoen baratza da, bestea Astigarreta auzoko "Errementari" baserriko baratza, eta, hirugarrena, Mandubia gaineko "Etxaniz" baserriko baratza.

Alemaniar lagun honen laborategira bidali eta handik bi hilabetetara jaso genuen analisiaren emaitza beretan latza eta kezkagarria izan zen.

Hamburgoko "Umweltschutzgruppe Physik-Geowissenschaften" izeneko laborategian egin ziren analisiak eta lagunak adierazi zigunez, lurra 105 gradutan berotzen dute, lurraren ezetasun guztia desagertaraziz eta interesatzen den elementuen kantitatea garbi ateratzen delarik. Honako elementu hauek aztertu dira: Merkurioa (Hg), Kadmiuna (Cd), Kobrea (Cu), Zinka (Zn), Kromoa (Cr), Nikela (Ni), Arsenikoa (As) eta PHa (PH).

Lehen esan bezala, analisiaren emaitza oso kezkagarria da; estadistikako marrazki batetan adierazi nahiko bagenu, "Aristrain" fundizioaren ingurua litzateke kutsadurarik hadiena azaltzen duena; gero Astigarretako "Errementari" baratza, eta azkenik Mandubia gaineko baratza. Edonork pentsa dezake logikoa dela, baina analisiaren emaitzak izugarriak izan dira.

Alemanian, lur zati baten kutsadura neurtzeko "Hollandliste" izeneko zerrenda erabiltzen dute, eredu gisa. Zerrenda honetan hiru zutabe azaltzen dira, lehenak (A), kantitate normala adieraten du; bigarren zutabeak, (B), adierazitako kantitatea susmagarria adierazten duen zutabea genuke hau; hirugarren zutabeak (c), eta hau da latzena, adierazitako kopurura iritsiko balitz, lur hori dena deposito moduko toki batetara eraman beharko litzateke, eta, noski, baratza hortako lurra ezingo litzake aurrerantzean ez aprobetxatu ez erabili. Gure analisisen kasuan, "Aristrain" fundizioaren ondoko baratzetako lurak hirugarren zutabe horretan adierazten den kopurua hirukoiztu egiten du. Eta, jakin badakigu, baratza horiek gaur egun erabiltzen direla, eta Euskal Herrian ez direla hartu beharreko neurriak hartzen.

OTSAILA

ITZULPEN ZERBITZUA

Urdaneta, 18 Tfnoa: 88 93 25

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Ikergaia	Jasotako muestraren etorkia			«Hollandiste» zerrenda		
	«Aristrain» fundizioaren ondoko baserria	«Errementari» baserriko baratza	«Etxaniz» baserriko baratza	Kantitate normala (A)	Kantitate susmagarria (B)	Lurra aldatu beharra (C)
Beruna	1.437,94	450,27	81,31	50,0	150,0	600,0
Merkurioa	0,75	0,90	0,12	0,5	2,0	10,0
Kadmioa	20,51	2,15	1,94	1,0	5,0	20,0
Kobrea	403,08	63,17	29,13	50,0	100,0	500,0
Zinka	6.694,35	662,63	251,21	300,0	500,0	3.000,0
Kromoa	648,21	68,55	72,82	100,0	250,0	800,0
Nikela	149,49	13,44	33,98	50,0	100,0	500,0
Arsenikoa	7,90	1,88	6,07	20,0	30,0	50,0

Koadro konparatiboa.

Koadroan ikus daitekeenez, garbi dago, «Aristrain» fundizioaren ondoko baratzetako lurrak eman du emaitzarik kezkagarriena eta larriena. Kasu honetan, Zink eta Beruna izan dira kantitate altuena eman dutenak. «Hollandiste» zerrenda horretan (C) zutabearen adierazitako kopurua hirukoiztu egiten bait dute. Alemaniako legeen arabera, baratza hori ezin daiteke erabili, bertan ateratzen diren barazkiak kutsatuta bait daude. Aurrerago ikusiko dugu, elementu metaliko hauek zer nolako eragina duten gizakion gorputzean.

Analisi honekin bakarrik, ezin da esan kutsaduraren arrazoia bakarra fundizioa denik, azterketa gehiago egin beharko lirake, baina ziur gaude, beste frogaren bat egingo bagenu emaitza lehen bezain kezkagarria izango litzatekeela. Alemaniako kasuan, honelako emaitzak jasoz gero, arrazoi gehiagoren bila hasiko lirake, fundizioan erabiltzen diren produktuak, materialak, prozesuak eta abar aztertuz. Aldi berean, fundizioaren inguruan dauden beste enpresa edo fabriken zerrenda bat egin beharko litzateke, erregistro baten bidez.

Bestalde, horiek ez dira kutsaduraren prozesuan sartzen diren elementu bakarrak, bertako haizeek ere, paper nagusia jokatzen bait dute; adibide gisa, eta garbi ikusi dai-

teke koadroan, «Etxaniz» baserriko baratza izan dela kutsadura maila txikiena azaldu duena. Gure ustez, kasi honetan haizeen eragina haundia da, zeren, bai «Aristrain» fundizioan, eta bai «Errementari» baserrian alde bateko haizeek jotzen dute soilik; Mandubia gainean, hots, «Etxaniz» baserrian, aldiz, portu gaina denez (540 m), haizeek alde guztietatik jotzen dute.

Beraz, kutsadura prozesu honetan, elementu asko aztertu behar dira, baina, halere, ez da kasualitatea,

fundizio baten ondoren azaldutako kutsadura maila. Honez gero, denok, baina batipat era honetako fundizio fabrika baten ondoren baratzak dituztenek, neurriak hartuta euki beharko lukete. Zeuek atera kontuak. Ez dakigu zer jaten dugun, ezta zer nolako haizea arnasten dugun. Askok, oraindik ezer ez zaigula gertatu pentsatuko dute, baina jakin ezazue, elementu metaliko hauen eragina gure gorputzean poliki-poliki ematen dela, eta askotan urteen poderioz kanporatzen dela.

“Ez dakigu zer jaten dugun, ez eta zer nolako haizea arnasten dugun”



FOTOCETIF

Elementu metaliko hauen toxikotasuna

Interesgarria izango zelakoan, elementu hauek gure gorputzean zer nolako eragina duten jakin nahi izan genuen eta bonako informazioa jaso genuen.

Beruna gizakiaren gorputzean

Elementu hau bi eratara sar daiteke gure gorputzean, batetik, arnasketaren bidez, eta bestetik, berunaz kutsatuta dauden elikagaien ingestioaz. Fundizio baten barruan egon daitekeen kutsadura arnasketaren bidez sortutakoa litzateke; aldis, fundizio honetatik al egon daitekeena kutsatutako jan-gaiaren ingestioak eragindakoa.

Behin Beruna gure gorputzean sartuz gero, odolak aise zabaltzen du, metabolismoko organu eta ehun guztietara. Beldurgarria da Berunak gorputz barneko sareak zeharkatzeko duen indarra. Adibide gisa, ume-gaia eta haurdun dagoen amaren arteko plazenta zeharkatzeko duen ahalbidea aipatzea besterik ez dago. Kasu honetan, umekiaren odola kutsatuko du, eta umekiaren garunean helduen garunean baino errazago almagaztatu da.

Berunezko bapateko intoxikazioak gizakia heriotzara eraman dezake; kasurik larrienetan eta kantitate handia irentsiz gero janaria botatzea, esteetako kolikoa, idorreria, giltzurrunetako paralisia, eta umeen kasuan meningitis gehienetan. Bapatekoa ez eta astiro-astiro bilaka daitekeen kutsadura bada, nekatuta, ahulduta sentitzea, goserik eza, pisua galtzea, buruko mina, kolikoa, inpotentzia gizonen kasuan, eta amenorrea izatea da ziurrena.

<Nerbio sistima dagokionez, Berunak, bai sistima zentralari bai periferikoari erasotzen dio, depresioak sortaraziz. Ikerketan jakin denez, kutsatuta gertatu den umeki batek, jaio eta gero arazo handiak izaten ditu psikomotritatean, bere adimen maila txikia izaten da eta, nola ez, ikasbiderako izango duen potentziala ere txikia izango da. Beruna kantitate handiz eta denbora luzez kutsatuz gero sendagaitzak diren gaixotasunak sor ditzake gure baitan.

Kadmioa.

Beruna bezain kaltegarria dugu, eta "Aristrain" en inguruan jasotako lurra erakutsi duen kutsadura maila nahikoa beldurgarria da. Aipatutako elementu hau beruna bezala arnasaren eta ingestioaren bidez sartzen da gure gorputzean, odola delarik bere garraibidea. Kadmiunaren bapateko kutsadura larria bada, axfisiar heriotzara eraman gaitzake.

Emeki-emeki Kadmiuna gure gorputzean sartuz gero kalteak izugarriak bilakatu daitezke Japonen ikusi ahal izan den bezala. Elementu honek hezurrei erasotzen die, eta berehala hauek indarrak gabe utziz, "Itai-Itai" izeneko gaisotasuna sortarazten du. Gorputz guztiko hezurak indargabetuta eta bigun-

duta geratzen dira, gomazkoak balira bezala. Estadistiketan ikusi izan denez, gaixotasun honek emakumeari errazago erasotzen dio eta gizonezkoengan prostatak minbizia sortarazten du.

Kobrea

Gizakion gorputzak behar duen Kobre kopurua zehatza da, baina behin kopuru hori gaindituz gero, pozoingarri gerta daiteke. Gure analisisetan, "Hollandiste" zerrendan, C zutabea 500-eko kopurua bada lurra desinfektatu eta desegin beharrean dagoela adierazten duena, "Aristrain" fundizioaren ondoko baratzeetako lurra ez du askoz kopuru txikiagoa azaltzen, 403,18 mg/kg.-takoa hain zuzen. Halere, hain beldurgarria gerta ez dadin, normalagoa da Kobre eza aurkitzea gure gorputzean, maila edo kantitate handietan baino.

Zinka

Kobrea bezala, Zink kopuru zehatza behar du gure gorputzak; dena den, Zinkaren eza, gehiegikeria baino kaltegarriago da. Zinkak sor dezakeen kutsadura ez da arriskutsua gizakiontzat, baina bai lurrean egon daitezkeen landare, animali eta uretako arraintentzat. Orain arte ez da ikusi gizakiongan elementu honek sortutako inongo deformaziorik ez minbizirik.


Aipatu beharrezkoa dena zera da, ikertutako lur horietan azaldutako Zink kopurua: 3.000 bada lurra kendu eta inola ere aprobetxatu ez daitekeela adierazten duen kopurua, benetan beldurgarria da 6.694,35 mg/kg kantitatea ikustea.

Gizakiarentzat hain kaltegarria ez bada ere, landareentzat pozoina izan daiteke. Garbi ikusi da, gure inguruetako gereziozko eta muxikaondoek azken urte hauetan jasan duten kutsadura prozesua, eta Zinka, elementu honen eragin

kaltegarria izan daiteke arrazoieta bat.

Kromo

Kromo kantitate zehatz bat izatea behar beharrezkoa da gure gorputzarentzat, eta Zinkaren kasuan bezala, Kromo eza, gehiegi izatea baino arriskutsuagoa da. Gramo kantitateetan sartuz gero gure gorputzean, pozoingarri gerta daiteke. Ingestioaren bidez sartzen da gure gorputzean, urdaila eta hesteen bidez hain zuzen. Gehienetan Kromo hau, umetoki, medula, birika, barrabila, bare, gibel eta giltzurrunean biltzen da. Halere, Kromo elementuak sor dezakeen kutsadura ez da berunak eta beste elementu batzuk sor dezaketan kutsadura bezain



arriskutsua, kromoak ezin bait du zeluletako sareak zeharkatu.

Nikela

Azkenik, eta bukatzeko, Nikel elementua aipatu behar dugu. Nikel elementuaren egoera fisikoa eta kimikoaren arabera egon daiteke egin dezakeen kaltea. Egoera inorganiko eta disoluzioan agertzen bada, bere intoxikazioak katarro kroniko eta sinusitis sor ditzake. Azalarekin kontaktuan jarritz gero ere, alergia eta infekzioak sortzen dira.

Egoera organiko eta grasa soluble itxura hartzen badu, Nikelak gure gorputzeko mintz-membrana sare guztiak zeharkatzeko ahalmena izango du. Intoxikazio larrietan, hasieran burukomina, arnasketarekin arazoak senti daitezke, baina behin 12-16 ordu pasa ondoren, biriketako arazo larrien bat agertu daiteke, bihotza ere ukituta izango delarik. Azkenean aipatutako Nikelaren egoera honek minbizia sor dezake gure gorputzean.

Amaia Arteaga, Holger, Ingo.

Beldurgarria da berunak gorputz barneko sareak zeharkatzeko duen indarra

ALOSKA

Edergintza-Usaindegia



Domingo unanue Plaza, 2
20240 ORDIZIA
TEL. 88 24 10



ORDIZIA BIDEO KLUB

Domingo Unanue, 1 - Tel. 88 79 19
20240 ORDIZIA



Aristrain S.A.-ren erantzuna

Espainia eta Europa-mailako depurazio onena Goierrin dago, fabrika honetan. 90ko irailean ke-depuradora martxan jarri genuenetik poluzioa nabarmen jaitsi dela agertu dute ikerketek. Horretan, 90ko apirilean hasi ginen, 1. epearekin eta 2. epea irailean. Lehenago hautsen 28 tonari eusten genien eta depuradora jarritz geroztik 40 tonari. 1.400 miloe pezetako kostua izan du.

Guzti horretarako Eusko Jaurlaritzarekin izan genituen gehienbat harremanak, bai eta ere Industria Ministeritzarekin. Gurea da Gipuzkoako enpresa bakarra EAE-n E.J.-rekin batera Ingurugiro Paktua prestatu duena, Bizkaiko Labe Garaien ondoren eta Cementos Lemonaren aurretik. Dena prest zegoen itun hori sinatzeko eta aldaketak izan ziren orduan E.J.-n (PSOE-EE-EA-EAJ,... bat besterekin, aurrera ezin egin). Guk aurrera egin dugu paktuaren atzetik.

Ingurugiro-faktore guztien analisisa egin zen; aideak, hautsak, ura, produktu kutsagarri guztiak. Eskonbrerara doan eskoria, itsusia izan arren ez da toxikoa. Dena oso ondo idatzita dago



Juan Jose Arostegi,
Zuzendari Orokorra.

Jende asko etorri da Olaberrira, bertako hautsa neurtzera. Espainiako norma da, 120 miligramu hauts M3 bakoitzeko. Europako topea 50 ml. Europear estatu gutxitan prestatzen ari diren norma berrietan, 20 ml. Gure proiektua azken honi kasu eginez prestatu da. Legeak ezartzen duena baino askoz txikiagoa da Olaberriako poluzioa. Horregatik diogu ke-depurazioa dugula beti-betirako.

"Enpresa berdea" izatea lortzen ari da Aristrain. Lehen, lan-errekon-

bert-sioa egin genuen. Orain, errekonbertsio ekologikoa egiten ari gara. Bilboko industria batekin hizketan ari gara, beste norabaitera eraman ditzan erretenitzen ditugun hautsak. Horiek erreziklatu, zink-a hartu eta lortzen da ziklo osoa betetzea. Beste elementu kaltegarriak "pasibatuak", neutroak, geratzen dira.

Fabrika osoa berritzen ari gara, konpetitiboa egiteko, ez Euskal Herri, Estatu edota Europa-mailan bakarrik. Mundu osoko goi-mailako konpetentzi-markuaren barruan baizik.

Xehetasun gehiago emateko pronto gelditzen da Ordiziako Arostegi J.a. (euskara ederrean). Eskertzen da.

"Enpresa berdea"
izatea lortzen ari da
Aristrain"

J.M. Arano

ZURE IRAGARKIA HEMENTXE
BALEGO, ZEU IZANGO ZINATEKE
DUEN ERAGINA IKUSTEN



88 96 12



HORNITEGI
LANABES ETA
HORNIGAIK
SUKALDE TRESNERIA

Madalena, 2 - Tlf. 88 19 95 LAZKAO



Suskribatu zaitez!

GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA

88 96 12

*Irakurri
eta
zabalitza
Goierritarra*



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

BODEGON GOIERRI JATETXEA

Tlf. 88 00 00

Kale Nagusia, 20


BEASAIN

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- Idazteko makinak
- Fotokpiak
- Koadernaketak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)



Liernia 20214 MUTILOA
Tlf. 80 16 99

- * ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M²
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA,
BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOTIRUK, E.A.

Tfnoa: 88 49 36

ITSASONDO



SOLOZABAL

AUTOESKOLA

PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia
- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA

URBITARTE SAGARDOTEGIA

- Kostilla eta txuletetan espezialdua
- Enkarguak Ordiziako Eroskiko Tabernan

Tfnoa: 88 83 31



ERGOIENA AUZOA

ATAUN




Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)



- Urdaiazpiko eta hestekien banatzailea
- Liburu eta konpakto denda

Urdaneta, 52 Tfnoa: 88 06 40 ORDIZIA

JESUS MARI ETXEBERRIA, TORRANONEKO GAZTEA ACONCAGUAN

Lazkaotar bat Ameriketako gailurrean

Joan zen abenduaren 15ean Jesus Mari Etxeberria (Torrano) lazkaotarrak, 6956 metrorekin Ameriketako gailurrik altuena den Aconcagua mendia igo zuen. Azaroaren 20an hiru lagun: Torrano bera, Xabier Aranburu beasaindarra eta Jon Perez pasaitarra abiatu ziren helburu berarekin, baina 25 egun geroago lazkaotarrak bakarrik lortu zuen gailurra egitea.



Ordiziako festetan sortu zitzaion joateko ideia. Satur idiazabalدارra Huascaran mendira abiatu aurretik komentatzen hasi ziren eta honek aipatu zion bere Pasaiko ezagun bat Aconcaguara joatekoa zela. "Pasaitarrarekin egun batean hitz egin eta konbentzitu egin ninduen. Xabier berriz, Jonek aurretik ezagutzen zuen"

Hiru lagunak azaroaren 25ean iritsi ziren 4200 metrotara dagoen kanpo base-ra, hiru egunetako bidea egin ondoren. "Haseran buruko min piska bat eduki genuen arren ohitzeko altuera handiagoetara igotzen hasi ginen". Lehenik 5000 metrotara igo ziren, hurrengo egunean altuera berdinerara igotzeko, lehen kanpamendua osatzeko tresneria eramanez.

Berriro jeitsi eta kanpo basean bi egun deskantsatu ondoren, goruntz abiatu ziren. 5.200 metrotan gaua pasatu ondoren 6.000 metrotara igo eta, "han ondo aurkitzen ginen baina altueraren gaitza zuen bati laguntzearren kanpo basera jeitsi behar izan genuen. Egundorretakoa aukera ederra izango zen lau kanadiarrek igo bait zuten".

Kanpo-basean 50 bat lagun bildu ziren: 12 euskaldun; Estatuko jendea, ipar-amerikarrak, finlandiarrak, kanadiarrak, hegoafrikarrak eta korearrak. Mendiaren alde-rik zailena den "hego aurpegian" poloniar batzu zeuden paret erraldoi hori igotzeko asmotan. Teknikoki zaila den "pola-koen glaziarra" izeneko bidetik berriz, **20 Goierritarra**

frantziar batzuk igotzen ari ziren.

Bi edo hiru egun deskantsatu ondoren, berriro goraka. Jon eta Xabier bi egunetan 6.000 metrotara igo ziren eta Torrano, berriz, egun bakar batean. Hemen lo egin eta esnatzean, eguraldi txarra! Jonek botek min egiten ziotelako behera jestea erabaki zuen eta beste biek lau egun gahiago egin zituzten eguraldia hobetu zai. "Etsiturik kanpo baseraino jeitsi ginen. Han etxera joateko eguraldi hobearren zai geundenean, Fitz Roy intensitatez zetozen bi asturiarrek topo egin eta hauek ere denbora gutxi zuten, aste bukaeran azken saioa egitea erabaki genuen".

Aconcagua: altuera handia, zailtasun tekniko gutxi

6.000 metrotara lau iritsi ziren, Torrano, Xabier, asturiar bat eta argentinarrak.



Goizeko bostetan, eguraldi nahiko ona zegoenez, goraka abiatu ziren. "Momentu txarrean haizeak oso indartsu jotzen zuen trabesi batean pasa genuen, gero azken 300 metroak kanal batean dira eta hobe igotzen zen arren beasaindarrak buelta hartu zuen hanketako arazoak zituelako. Arratsaldeko lauretan iritsi ginen gailurrera asturiarra eta biok. Eguraldi nahiko ona zegoen, 25' zero azpitik egundorren eta argazki batzuk atera ondoren beheruntz jo genuen. Bidean argentinarrak nahiko egoera txarrean aurkitu genuen eta berari lagunduz zuzenean kanpo baseraino jeitsi ginen". Han ondo jan eta egundor bat deskantsatu ondoren etxeruntz abiatu ziren.

Aconcagua altuera haundia baina zailtasun tekniko gutxi duen mendia da. "Horregaitik zenbait jende fuerte joan eta erreza ikustean azkar igotzen hasten da, aklimatatu gabe eta gero oso gaizki pasatzen du". Konjelazio arazo asko ere gertatzen dira. "Goierritarren batek joatea pentsatzen badu hau hartu behar du kontutan: ondo prestatuta joan, erropa egokiak eraman eta lasai-lasai igotzea".

Orain dela gutxi 14 urteko neska gipuzkoar batek mendi hau igo du. "Baita ere, zortzimila bat egina duen nafar batek bost egunetan igoko zuela esanez joan eta izugarrizko pajara harrapatu zuen. Horrek esan nahi du lasai eta gogoarekin hartu ezker ez duela arazo handirik".

Mikel Albisu eta Ane Martin

KLASIFIKAZIOAN LEHENAK ATOL-ORDIZIA K.E.-KOAK

Ligako Txapeldun geratzeko arrisku-bizian

Urtez-urte ordiziar Eskubaloit-talde bat sortzeko irrikitan zeuden zenbait esku-baloit-jokalari ohi. Ez zuten lortzen gauzaterik asmo zintzo hori. Jokalarien, zaleen eta non entrenatu izateko istalakuntzen faltan zetzan kokka.

laz inauguratu zen "Majori" polikiroldegia eta "hala, bage-nuen gauza inportanteenetako bat jendea erakartzeko", — esaten digu Juan Mari Garmendia, kirol taldearen lehendakariak. "Mogitzen hasi ginen eta talderik atera nahi zuen gazte-talde bat bazela enteratu ginen. Gure atzetik zebiltzan gainera, gaiari buruz hitz egiteko. Juntatu ginen, hitz egin genuen, beren adineko jende gehiagoren bila hasi ziren". Eta baita aurkitu ere, antzenez.

Ilusioarekin eman zioten ha-

sera Ligari, konpenetratzen baziren nahikoa izango zela pentsatuz. Hori baino gehiago erakutsi dute jokalariek eta izaniko emaitza bikainak berretsi du hori, "pentsa, Ligako Txapeldun izatera iritsi gaitzela pentsatzen hasi gerala eta guzi, lehen klasifikatuak bait gara oraingoz".

Aurtengoan lortzen ari diren arrakasta eta gero oso animaturik sentitzen dira eta "datorrenako gaztetxo-talde bat dugu dagoeneko. Kadeteok gogoz ari dira ikasten eta entrenatzen, nahiz eta badakigun hasiera zailak izango dituztela; baina egingo dira, eta Ligan paper ona egingo duten ustea dugu. Jubenil mailako ekipo bat ateratzeko intentziorik ere badute endemas, gaurregungokoak Lurralde kategorira igo behar baitira", gaineratzen du



Fitxa teknikoa

"Ordizia K.E.-Atol": Zuzendari eta entrenatzaile: Pedro Valor; Jokalariak: Jesus de Marcos, Jose Luis Lopez, Luis Nieto, Fernando Soto, Jose Colorado, Jose Mari Escobar, Mikel Esnaola, Jabi Dorado, Jose Pedro Jimenez, Iñaki Olea, Iñigo Cadarso, Igor Auzmendi.

Zuzendaritza (jokalari-ohiak gehienak): Juan Mari Garmendia, Pedro Valor, Txomin Fernandez, Emilio Luis, Jabi Zarraga, Mikel Gil, Jose Mari Fernandez eta Patxi Muriel.

Juamarik.Eskubaloit-Taldea

Eskubaloit-Taldea "Atol" biltegiak patrozinatu du, eta horrekin esker. Ez dira bakarrak, denak

ezin aipa ordea. Ordiziako Kirol Zinegotziari ere eskertzen diote bere laguntza


Bi lerrotan

☛ Amaia Andres beasaindarra dugu 800 metro-tako Estatuko atletismo txapeldun berria. Gipuzkoako errekorra hautsi berri duen Ordizia Kirol Elkarteko korrikalaria erreztasun haundiz nagusitu zitzaion bere arerioei. Genova-ko hirian jokatu diren Europa mailako txapelketa du orain goierritarrak helburu.

☛ Iberdrola-S.C. Loinaz izango da Loinaz Txirrindulari Elkarteko kadete eta afizionatu taldeek hasi berria den denbo-

raldian eramango duten izena. Castillo hotelean burututako aurkezpenean garaipen ugari lortuko direnaren itxaropena azaldu zuten taldeko arduradunek.

☛ Urteroko ohiturari jarraituz, futbol partidu bikaina eskeini ziguten Don Bosco egunean Irakaskuntza Ertainetako ikasle eta irakasleek. Azken emaitza 5-2koa izan zen. Ikasleen aldekoa honako honetan. Teknikariek ezean humorea behintzat badutela erakutsi ziguten zenbaitzuk



(Amaia Andres)



LAZKAO

GERRIKO TABERNA

Eguneroko bazkari eta afaria

Elosegi, 16 Tel: 88 99 43

LAZKAO



IRVROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA

GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 BEASAIN

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 5854

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

RAIMON MUSIKALA

SANYO BANATZAILE OFIZIALA

Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURRETA, Z/G.
Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN



Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

MUJIKAL AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km
Tfna: 88 74 00 / 88 74 04
Fax: 88 79 52 **BEASAIN**



BEASAINGO TABERNARIEN ELKARTEA

Han dago Amezketako "Bixente" Mendigoizale-Aterpea

Amezketako "Bixente" mendizale-ostatuaren historiak mundu bat osatzen du. Sakonean begiratu, ezagutu eta aztertuko bagenu irakaspide ederrik aterako genuke.

Bixente Aierbe ospetsuaren ilobarekin, Sebastian Bernarats-ekin egon gara. Gustora!



Etxea gurasoengandik jaso zuen Bixentek eta taberna bezala zeukan. 1947.ean ireki zen, berriz, Mendizale Aterpe gisa, batipat Txindoki eta Aralarrera zoazten mendizaleengan erreparatuta. Mendizale-zirkuluetan premia hori, aterpe beharra, nabarmen-nabarmena zen.

Garai hartan, kaminorik ez zen Larraitz, San Migel edo Guardaetxerainokorik. Amezketara bai, ordea. Bus linea bat bazen Tolosatik, Alegitik paseaz Amezketaraino. "Zubeldia" gerora, "Arandia" aurrena.

Aterpea sortzeko liburuan dakar nola eman zuen baime-na horretarako Espainiako Mendi Federakuntzak. Peci-a jaun ezaguna egon bide zen lorkuntza horren atzean. Bixente ospetsua egin zen kargu etxeaz urte eta urteetan.

"Bixente, gizon oso xehea eta apala izan zen, martingala zirikatzailearen bat ere bazuen (karta "elektrikoak": aterarazi karta eta kalanbretxoak, zas!), ezezagunekin adiskidetzeko. Beti zuen apaltasun bat osaba Bixentek, norbait bustirik bator menditik, erropak lehortu edota bere bonbatxo zaharrak eman. Beti prest", dio Bernaratsek.

Horren agergerri dira, ikusgarriak dira "Bixente"-enean dauden argazki eta errezeptio liburuetaoak, zer nolako

adeitasunarekin idatzita, mundu osoko jende ezagunak eta anonimoak utzi dituen lekukotasunak, eskeintzakiko argazkiak, e.a. Bixentek egin duena, ateak ireki mundu guztiari. Sentsibiltate guztiak onartu dituzte eta ez bereizketarik egitea. Hortik pasa ez den animarik ba ote?

Abertzale giroa handia izan behar zuen lehen: mendigoizale, dantzari, txistulari, kan-



tari,... Horren lekukorik gertatu da. Baina dena ere ez da ona izaten eta 69.ean, goiko solairuetan gaua pasatzen zeuden zenbaiten artean izaniko sesioa zela eta guardia-zibilen bixita eta ondorengo zigorra jasan zuten. Logelak itxi behar

Gaur edo bihar, zer?

Bixente 84.ean hil arren, etxeak zutik iraun du. Aterpea zahartua zegoen, berritzen ahalegin batzu egin dituzte.

Berrikuntzekin antigualeko traste zaharrak zokoratu ziren. Zer egin zen haietaz? "Hor daude denak, jasota. Nire iritzan bezeroek asko esijitzen dituzte eta berriro prantatzeko asmo osoa daukat. Jendeak emandako oroi-penak dira". Museo moduko bat eratzea ere pentsatu eta Amezketako Udaletxera jo zuten. Ez zen akordiorik lortu, baina ez dauka ahazturik etxeko nagusiak: "ondo banauzu eta gaur edo bihar familiak segitu nahi balu, etxea itxi baino lehenago neurriak hartuko ditut".

Nagusiak ez-behar bat izan eta ezin izan du bertako martxa eraman, baina Kontxi etxekoandreak buru egiten duen familia batek dauka alokatuta, bazkariak eta afariak (barrunak, txuleta, plater tipikoak) ematen dituztela.

Halere, giroa aldatzen joan da. Mendizaleak beste irtenbide batzu ditu: Pirinioak, Candanchu,... Aralar-bidean, gaur auto asko igotzen da

Larraitz, San Migel, Eneriora. Honek bilgune izaten jarraitzen du oraindik eta kaleko jendeak jakin dezala mendi iteera bat egitera badoa edo goitik badator salda, edo behar duena baduela Bixente-enean. "Gaur egunean ere, aberats/pobre, denetik gauden. Mendira doan jendeak, gazte- jendeak batez ere, erraztasun bat behar du, nire ustez. Zinbrera batekin bator, edo bokadilo hotzarekin, hura berotzeko aukera badu. Jaten gastua ez egin arren, zerbait edan edo hartuko du", dio "Bixente"ren ilobak.

Aterpearen istorioekin liburu bat kaleratzeko bilera-eguna jarria daukate Elkartekoak. Komeni zaie Etxeari bultzada emateko eta zerekin bete badute. Lehenagoko herendentziari eutsi eta mendizaleei eta naturazaleei lagundu. Hona hemen bi asmo goresgarri! Mendian agurrak ere gustorago egiten dira, batak bestea hobeto onartzen du. Luze iraun beza "Bixente" Aterpeak

J. Arano

"BIXENTE"

MENDIGOIZALE ATERPEA



**Tel. (943) 65 32 57
20268 AMEZKETA**



Iñaki Mendiguren ezkiotarra, Arrasaten idazten eta itzultzen

37 urte ditu. Itzultzaile gisa egiten du lan gehien bat. "Haltzak badu bihotzik" nobelaren egilea (bi mutilen arteko amodio-istorio bat). 3. edizioan doan nobela

Hamar urtetatik hamabostetara Jesuitetan ikasi zuen Xabierren; Donostian Batxilergoko 6.a eta PREU ez baino bai COU ("70.eko kontuak dira, Burgosko Prozesu-garaioak..."). 18 urterekin erlijio-kezak loratu zitzaizkion barnean; Donostian ezagutu zuen Eliza Ebanjelikoa edo Protestanten deritzona eta gero Deustura egin zuen, Filosofia eta Letretan lizentziatu zelarik. Bilboko Eliza Protestanten sartu zen, orain 18-20 urte.

"Ordutik euri asko egin du. Artzai, pastore edo horrelakorik ez naiz: kultu edo sermoi batzu eman ditut, egin behar zenean egin dut. Izan ere, Ebanjelikoa ez da Eliza Katolikoa bezain zurrin eta jerarkikoa. Emaztea ere (ingles/euskalduna da) elizan topatu nuen", esan dio GOIERRITARRARI.

Urtean bitan, aste pare bat egiten ditu Lazkaon, Elizen Arteko Bibliaren Itzultzaile ekipokoa bait da. Eskoriatzako Irakasle Eskolan irakatsi izan du. "Arrasate Euskaldun Dezagun", "Arrasate Press" eta "Arrasate TeleBista"-ren "aita"etako bat dugu Iñaki. "Arrasate Press"eko zuzendari izan da orain dela gutxi hilabete batzuz: bere eskua, asmatzeko, idazteko hobia, kazetaritza egiteko baino, nabaritu dugu.

Itzulpengintzatik bizi da: itzulpenen erdiak Arrasate-aldeko enpresentzat egiten du, eta %60a argitaletxeentzat. "Elkar"-eko "Irakurmendi" saila koordinatu eta itzulpenak egin; "Aukeratu zure abentura"-n, 12 liburu ditu itzulirik, Oscar Wilde-ren ipuiak euskaratu ditu, "Gulliberren bidaiak", e.a. 25 bat liburu itzuliak bizkarrean.

Xabier Mendiguren (Bereziartua), itzultzaile ospetsuaren anaia da Iñaki hau, orain Gipuzkoako Diputazioa berritzeko den Ezkioko Igartu-Beiti baserri-zaharreko semeak biak ere. Ezkion ez dira gehiegi agertzen, gurasoak hilez geroztik, baina jaioterrian bihotz-zatitxo, noski! Arreba ere Zumarragan bizi dute (andereñoa da Oñaztegin), eta hara. Izan ere, Ezkioko jendeak Urola-alderako joera badauka ere, "Ezkioko da Goierriko lehen herria eta goiko punta, ezta?".



Santi Auzmendi Jostun lazkaotarra Donostia

Euskal Herriko mugetatik kanpo oso ezaguna da Santi Auzmendi jostuna. Bere arropa eta diseinu bitxiak badute arrakastarik Euskal Herri osoan eta bati-pat Donostia inguruan. Oso gazte zela Lazkaon hasi zen arropa eta jostuntza munduan "muturra sartzen". Hamabost urte besterik ez zituela bere herriko Jauregi jostundegian hasi zen bere lehen lan txikiak egiten, hemeretzi urte zituela Bartzelonako akademia batean sartzeko gero. "Garai hartan oso arraroa zen gizonezko bat jostun- munduan mugitzea", gutxiago gainera akats fisikorik ez bazuen.

Lazkaoko etxe azpian ireki zuen bere lehen denda, emakumezkoentzako jantziak moldatuz, handinahi pertsonalak eragin zion aurrera egitea. Atzerira hasi zen ateratzen, Londres eta Parisera. Lazkaotarraren aurrera egin nahiak, Hernanin denda bat irekitzera eraman zuen: "Beti nahi izan dut originaltasuna mantendu eta izakera berezia eman nire sorkuntzei".

Bere lehen urteetan garaiko sastre guztien moldeak apurtzen zituen, egiten zuena oso fuertea eta deigarria zen garai hartarako eta kritikak jasotzen zituen. Publizitatea egiteko orduan ere originala izan dugu Santi. Bere betiko ametsa Donostian arropa denda handi bat irekitzea izan dela dio Auzmendik, eta lortu du. Modernismoa eskaintzen du bere denda, baina ez maila sozial konkretu batentzat, dienez.



Ane Albisu idiazabaldarra, "Iturri Onetik" saritua

"Iturri Onetik" irratsaioari esker, Emakundek saritu egin zuen lazko abenduan Ane. Argazki honetan ez du ematen, baina ez dakizue zein urduri jartzen den "izaldir" hau argazkilari baten aurrean. Igoal ez dago ohituta kamara baten aurrean egoten, nahiz eta Euskal Telebistan 10 hilabete egin zituen. Euskadi Irratiak joan zen ETBra, eta handik langabezi-rea, eta handik —88ko urrian— berriz ere irratira. A. Iturbe eta J. Otamendirekin batera egiten zuen Goizean Behin irratsaioa. Irratsaio hau Radio Euskaditik egin zuen. Beraz, Bizkaiko berriak eman behar izaten zituen. Horrez gain, astean behin "Iturri Onetik" programa egiten zuen, ordu beteko erreportaiak: "Ordu beteko programak ziren, baina lan asko ematen zidaten. Programa honi esker Euskal Herri osoan ibili nintzen kotxearekin. Ez nituen elkarrizketak telefonoz egin nahi izaten, eta elkarrizketatuaren etxeetara joaten nintzen.

Bi aldiz saritua

Asteazkeneko irratsaio horretarako lau programa egin zituen emakumei buruz, eta lau saio horientatik Emakundek saritu egin zuen lazko abenduan. Añeren herrikidea den Zirikia Irratia ere saritu zuen Emakundek. Elkarrekin honen saria jaso, eta handik gutxiira beste bat eskuratu zuen gazte honek: Sustatu Sarietan hirugarrena. Sari hau drogari aurre egiteko leku batean, Aizegainen, egindako irratsaio bategatik eman zioten.

Gaur egun, berriz ere, "Goizean Behin" programan ari da. Ez da lan makala egunero hiru ordutako irratsaioa aurrera ateratzea, nahiz eta bost lagun aritu. Beraz, trebea dugu "izaldira" irratilari. Eta aurki, hori agindu digu behintzat, GOIERRITARRA aldizkarian ere idatziko omen du. Zain dituzu irakurleak!

Irakur
Euskal Prentsa

PELEGRINO, PRAILE-TENPLARIO, LAPUR-BANDOLERO ETA OINEZKOEN...

San Adriango Bidea

Bide bonek soinean duen historiak eman du egundaino zeresana pranko. Honen ingurukoak direnez "Zegamako Kontuk"-en atal bonetan sartu ditugunak, egokia ezezik beharrezkoa iruditu zaigu sarrera gisa edo zenbait argibide tartekatzea. Izan ere, bonetxek ematen bait digu istorioak girotu eta ongien ulertu ahal izateko aukera.



San Adriango kaltzadea

Iruñeatik Oarsorako bide batetaz mintzo ziren Erromako geografo zabarrak. Bide bonetaz aparte beste biru ere bazi- ren Gipuzkoako lurra korrituaz Galiatik Ispaniara zetozenak:

1.—Donostiatik Bizkaira itxas-bazterra zebarkatuz.

2.—Irundik gaurko Oartzunera.

Astigaragako Bentak-Santiago menditik Hergobiara jaisten zen Hernanin sartzeko. Hernanin, gaurko trenbide geltoki inguruan bikoizten zen bide hau:

Ezkerrekoa, Oria ibaiari jarraituz, Zegamara iristean, Iturzabalera igotzen zen.

Eskubikoa Lasartera ziboan, Zubieta, Zarate, Iturriotz, Zelatun eta azkenik Mandubira zetorren. Eizagatik Brinkolan zebat Zegaman sartzen zen. Hemen, Aizkorriren gerria korrituaz (Mandabide) Iturzabalen elkartzen ziren bi bide hauek.

*980 urtean San Adrian Baionako Eliz Barrutiaren muga bezala agertzen da.

*1.027.ean, Santxo Haundiaren dokumentuan, Iruñeako Gotzai barrutiaren muga San Adrianen finkatzen da. Gipuzkoaren gebiengoa artzaintzatik bizi zen. Castillarekin batuz gero, bango eta hemengo artileak Ingalaterran saltzeko aukera zetorkien.

*Bide bonetan bertan, Santi Espiritun bain zuzen ere, Tenplarioen ordena finkatu zen, Compostelara ziboazen peregrinoen ardura eta bidea zainketa beren esku zutelarik. Tenplarioen desagertzeak San Adriango pasoa ardurarik gabe utzi zuen.

Ondoren, Oñatiko konde izango zena egin zen paso bonen jabe: Ladron de Guevara. Honek, konfiantza osoko senide bat jarri zuen bide bonen zaintzaile: Ladron de Zegama. Azken bonek San

Adriango bidean bere aldakuntzak egin zituen. Santi Espirituko peregrinoen egoitza Irutxeta edo Gesalbizkarrera ekarriz.

*XV. mendean fraileak zeuden berriro Santi Espiritun peregrinoei jana eta loa eskeiniz baina, 1527. urtean, Gipuzkoako Junda Generalak, etxe hau mantentzeak sortzen dituen zorrak direla eta saltzea erabakitzen du. Ermita bere lur guztiekin — gaur egungo Asemendi-Muño, Asemendi-Moleo, Asemendi-Barrena... — Segurako Markesak erosi zituen.

*XVIII. mendean, 1. go mikeleteak kobazuloan bertan ezarri ziren arte, ez dago bidearen inolako zaintzaileren arrastorik. Epe horretan koka ditzakegu bandoleroen kontakizunak. Kontuak-kontu, badirudi "Ataunen eta Zeaman eunez ikusi eta gauzez eaman" esaerak izan dezakeela bere zentzua garai bonetako zenbait gertakizunei begiraturaz. Izan ere, lapur hauek etxekoak ziren, oso ondo ezagutzen zituzten inguruko bide eta bide-xenda guztiak. Jakin, bazekiten Aratz gainetik begiraturaz, Araba aldetik zetorren jendea aixe barrapatu zezaketela San Adrian aldera inguratzean.

Bada bide horretatik pasaturik makina bat eratako jendea: peregrino, herritar, atzerritar, errege eta bere korteak... Azken baten artean, Alemaniako Carlos V, sekula makurtu gabeko gizonak makurtu behar izan zuen koban sartzean.

Santi Espiritu

Santi Espiritun, han, omen tzan ordena bat: frailes templarios eta horik eukitzen zuen "ganao de refresco", etzoen mezaik ematen. Etortzen zien ganadu kantsatukin herek gelditzen tzien kantsatutakoa ta ematen tzuen atseindako ganadue, aurea seitze-

ko biden. Eta hori zan, organizazio bat, eta zeuken heren kanpo Satue, nik ez det ikusi baño nik badakit nun daon, ermiten atzekalden. Han, artzaiek ardik jetxi ta eiten zituen eta Donaton attona, Joxe Miel, eun baten hasi men tzan ardik jeisteko pixkat berdintzen, harri batzuk atea ta... billatu-itu pertsonan hezurrek eta esan men tzon e:

- Hoai paken utzi behar zitek, deskantsau dezela hemen!

Eta berriz tapatu ta utzi emen zitun han.

Horreati da, esaten zaio hari "Prallen Kanpo Santue".

Joxe Alustiza

Santi Espirituko Praillea

Aratz azpiñ, oaiñ harri daren bezela, lehen mea-burni pusketak eote men tzien.

Behiñ, ola-gizon bat ai men tzan harrie biltzen. Espiitu Santuko pralle atek hori ikus zoonen, aballan harri at jarri ta tiau, jo burun da seko utzi men tzon ola-gizona.

Espiitu Santuko prallek gizon txarrak men tzien.


Bernardino Azurmendi

San Adriango Lapurre

San Adriandi zehar mandazai bat men tzi-jon mandoa urrez kargauta zola. Atzeti bate-onbatek seitzen ziola konturau zan baño aurea seitu zon.

Halakon baten, Opakua gañea alleau zanen, seitzen zionak alto! bota zion mandazaiei da diruk eskau. Mandazaiek txoakilloa zaldiri kendu, lapurre jo burun da hill eiñ tzon.

Lapurre Santu Espirituko frallea izatea suertau zan. Orduti galdu men tzan Espiritu Santuko konbentue.



San Adriango pasabidea

Praillen Bolalekue Nun Don

Fraillen bola-lekue da hau Aldaolan bado ba han deposito bat, deposito haren azpikalden, han tzien pago batzuk, ba, lau gizon jarri bueltan eskue emanda da, etzituen harapatuko halakoxek zien, haundik. Azpi hartan, han eoten tzan beti fresko-fresko, mendi hura botatzen tzuenen beti txondarrak lau o bost eiten zituen han bide hartan eta gero klaro, txondarrak nola izaten don ikatz edo hauts hori, hauts horrekin eoten tzan hura plaza bat bezelaxe. Gero ein tzoen deposito hori goien eta, deposito horrek estakit lertu o ze ein tzan, hura raso transformatu zan baño, frailleen bola-lekue hura da.

Joxe Alustiza

Mandabidea

Aizkorrin eiten tzien ikatz danak Ajuriana juten tzien gehianak, Araiara. Eta klaro, gero kanbiatu zien gauza horik, lehenengo betiko bide hori besteik etzan, ta horreati esaten tzaio horri manda-bidea.

Hor jende asko ibiltzen omen tzan ba, kontrabandon ee bai, kontrabandon zeatik probintzi bateti bestea zeuken paatu beharra, alkolak, gatza eta horik patzen tzoen tassa bat, txiki o haundi danak patzen tzoen ta horri iges eiteko ibiltzen tzan jende asko.

Hemen emen tzien, landaatan, bost anaie eta horik eiten men tztuen izugarrizko fetxorik. Mendin erten, eta kentzen men tzien zea, zeuzken merkantzik eta mandazaien batek behin baten esan do —Landaatako mutilek ia famatuk men tzien—.

Nee txakurrekin da kutxillo honekin nik Landatako mutilleen bildurri etzeukeat.

Nunbaiten esan do, enteratu die, eta gaz-

teana emen tzan, mutil fuertea, eta esan men tzien beste anaiei:

Zuek ez nahastu gauza hontan, men barrik nahikoa nok horrekin.

Da, erten dio mutil horrek da beste horrek txakurre bota dio, axa-axa ein dio txakurrei eta Landatako mutil horrek kutxilloa, emen zemen erropa bat bilduta, esku baten, da kutxilloa besten da txakur hoi hozka hasi danen sartu dio kutxilloa, sahietsen, da, txakurre akaatu dio eta, esan dio:

Hik, oaiñ, daamatzean gauza horik, danak utzitez hemen, eta, beste eun baten mingaiñe eukizak bee lekun. Bestela honi pasatu zakona pasatuko zaik heorri.

Amiñagoena

Ormazaalgo mutillen batek ba men tze-kiññ hemen pasatu behar tzola señora bat halaja asko zemazena eta, hala, ba, harek laune nahi da, etorri da Amiña-Goenea, eta txakurre zaunkaz da hemengo mutilek erten do atea eta ezautu, klaro, ezautuko zien ta esan dio ze pasatzen dan eta nola nahi don laun bat. Jun die kueba baño aurreago ia Portu-Gañen edo hau, erten doe, andre horri kendu dioe dauzken alaja danak, da utzi doe señora hori.

Kuestioa da, hasi die inbestigatzen da jakin doe zeintuk dien eta, klaro, juizio einda eta Ormazaalgo gainen urkatu men tztuen bik. Eta, Amiña-Goeneko mutilek esan men tzon, harek akonsejatzen zola hurrengo aten atariñ txakurre zaunkaz ikusten zoenen ez ateik zaaltzeko.

Joxe Alustiza

Barriola I

Barriola izeneko ikazkiññ bat San Adrianen bizitze men tzan bee koadrillekiñ, batzutan ikatza eñez eta beste atzutan lapurretan, etatze men tzon ogie. Ikazkintzea bukatzen tzoen, Arabaa jeixte men tzan da hau etxe aten apopillo eote men tzan. Apopillo zeon etxen, ama alargune ta alaba bizi men tzien.

Behiñ, ikazkiñ menditi jetxi zanen, ama-alabak nearrez men tzeren.

Zer dezue? —galdetu zien ikazkiñek—.

Nausie etor zaku errenta billa ta diruik eztauku.

Zenbait da dirue?

Hainbeste.

Ikazkiñek eman tzon behintzat diru hori. Nun da noiz nausiri pau behar tzien galdetu zien Barriolak, eta gauen halako lekutan, kontestau zien.

Ama-alabak eta nausie bildu behar zuen lekua Barriola hook baño len jun tzan eta izugarri at zeon bertan. Barriolak izugarriari trabukoa jarri zion eskutan, gero bera izkutaui ein tzan.

Ama-alabak etor tzien, nausie re bai, ta diru entregea hasi zanen, baztar bateti dei ein tzien Barriolak:

Alto! moitzen bek, tiau!

Nausik larru gorriñ Barriolai eman tzion diruk.

Denak etxea bildu zienen, ama-alabak harrituta Barriolai kontau men tzien gertau zientena.

Jesus Mazkieran

Barriola II

Barriola bee koadrillekiñ Portu Gañen ibiltzen tzan ikazkintzan. Ataundarra zala esaten due, Urskuangoa zala re aitua det.

Gipuzkoati Araba zeillen jendeak San Adriango kueba zeon kantinan dirue jokatzemen men tzuen. Jende asko errenta diruk galdu ta errentak pau ezinda re geatzemen tzien.

Barriolak arbolatan izkutaui jartzen zitun gizonak, kaltzadan inguruan. Jendea zeto-rreanean: danba! ta gañea salto eiten tzien. Batzuaui dirue kendu ta etzeukanai eman da hola ibiltze men tzan. Artzai ardik eo arku-mak ee harapatzen tzien.

Behin San Adriana zijola, Asumendi muñoko amona txikie jatekoa eiten ai men tzan. Hontan, handi Barriola pasatzea tokau zan. Amona txikik labeti etaa oreka ta pusketat-at eskeñi zion Barriolai. Hontan hizketan hasi zien:

Amona, ze berri doo?

Ze berri don esaten diazu? Jende guztie hor dalle Barriola gora ta Barriola bera, bati dirue kendu diola, beste ardie harrapau diola, hok die hemengo kontuk.

Muñoko amona txikie, laben zeren ogiai buelte ematen hasi zan. Ogik alde at erreta ta bestea oaindi oretan zeuzken.

Nik, —esan tzon— gizon hori albano, ogi hau bezelaxe, laben sartuko noke.

Zuri oker asko ein al dizu? —galdetu men tzion Barriolak.

Nei ez, baño askoi bai.

Ordun Barriolak oretan laben zeon ogi at hartu, andrei gonak jaso ta ipurdiko erreten ipiñ tzion. Haak garraaxik

Hurrengon Barriolakati arrazoiez hitzeiñ, Barriola ni naiz ta.

Hala izkutaui men tzan.

Bide asko zaitzen tztun Barriolak: San Adrian, Zoazarreta eta beste asko. Zaldi gañen zijonai lazoa botatze men tzion. Hala urkatze men tzon jendea.

Jose Mari Zabaleta

Barriola IV

Barriolak bee motillai hola aintze men tzien:

Halakok eta holakok halako lekutan utzi dezala dirue. Ezetz esaten badue, esan gañen geala.

Behiñ paatzen zuenak paken uzten tztuen.

Roman Otaegi

**Nekane Arantzamendi
Arantxa Goiburua**

ITZALTZEKO EZ ZAIO ASKO FALTA LARRAITZKO TRIKITIXARI

Mujika anai-arrebak:

“Jaioko dira berriak”

Larraitzko Trikitixak bazterrak alaitu ditu urte batzutan behinepein. Mujika anai-arrebek Trikitixatik etorkizunik ez dute ikusten, itxura denez, eta uztekotan dira “inpernuko hauspoa”. Pena da, baina beren saiotxo egin zuten eta gazteagoei uzten diete publiko-aurrekoko lekua. Ez adiorik.



Aitarengandik, betidaniko soinu-jolea-
rengandik datorkie. Hura ibiltzen
zen gaztetan soinua joaz, inguruko
erromerietan eta batik bat bertako famosoz-
ko Larraitzko erromerietan.

Joxe Mari Mujikak (soinujoleak) 24 urte
ditu eta gazte- gazterik hasi zen, panderoa-
rekin laguntzen ziola aitaren soinuari.
Anaiak soinua ikasi zuenean erakutsi zion
panderoa jotzen 14 bat urte zituen arrebari.
Idoiak (panderojoleak) 18 urte ditu orain.
Hala hasi ziren biak batera eta urteak dara-
matzate erromeriz erromeri, ezteietan, afa-
rietan... soinua jartzen.

Sarietara aurkeztu gabe ez dira geratu eta
bai eta ere irabazi batzu-batzuk: 87.ean
Txapelketa Nagusiaren finaleraino iritsi eta
7. egin zuten. Gipuzkoako Trikitixa
Txapelketetan, hiru txapel dituzte atereak:
Gaintzan, Beizaman eta Zizurkilan.
Zizurkilgo lehengusuekin ere aurkeztu
izan da Idoia.

Zinta-kaset bat ere argitaratua dute
Mujika anai-arrebek “Larraitzko Trikitixa”
izenburupean, “Elkar”-en eskutik. “Asko sal-
du zen, bai eta Euskal Herritik kanpora
ere”, ateratakoarekin gustora daudela aitortu
digu Idoiak.

(Abaltziketa).

Etxeko alabaren esanetan, alaia izan be-
har du bat, “igurtzi” hori euki trikitixan arit-
zeko. Gustora aritzen da. Garai batean asko
ateratzen ziren afariak eta beste alaitzera,
baina orain, ordea, uztekotan dabilta.

Idoiak etxean (Toki-Alai tabernan) egiten
du lan eta oraintsu orrazten ikasten ari da
Donostian, “piska bat utzita daukagu.
Anaia ere kamioiarekin dabil lanean, ez-
kondu- berria da gainera-eta...”


Beren amak dio etorkizunik ez dela ikus-
ten trikititik, “bi lagun atera etxetik, segu-
ruak pagatzen basi eta ez dago zer eginik”.
Trikitilari asko atera da endemas azken ur-
teotan.

Neska, bat dator Garbiñe Balerdiren esa-
nekin, “Hemen bandia da zaletasuna, be-
men adina, non? Gazte jende pilo bat da-
tor. Gu uztera goaz. Badatoz, balere, be-
rriak, eta ez da galduko zaletasun hori”.

Norbait onik aterako den? Gaztetxoek au-
rrera eginez gero bai.

J. M. Arano

Trikiti tradiziozkoak
jo izan dituzte, fandan-
goak, porrusaldak, e.a.
“Trikitixa berriak, ro-
kanrol eta bestelako ti-
po horiek-eta modan
bezala daude, baino
guk ez halakorik.
Trikitixa-trikitixa”, dio.
Hemengo aideak, ma-
de in Larraitz

**GABIONA**

Errodamentuak, S.A. ...

F.A.G. eta G.P.Z.en banatzailea

Biltegi eta Bulegoak: GOIERRI KALEA, z/g.
Tfnoa: 88 45 00
Fax: 88 99 06

20240 ORDIZIA

URBIETA**JATETXEA**

Eguneroko menua eta banketeak

Espezialitatea Txuleta
kokote brasan
Etxeko posteak

HELBARRENA

TFNOA 88 10 19

ATAUN

JAUREGI**TOLDOAK s/l**

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

Goierriko Bertsolari Taldearenak

Goiuriako jatetxean ospatu zen ETB-ko "Hitzetik Hortzera" saioaren amaiera esker onezko bilera batean. Bertan bildu ziren bainbat bertsolari eta gaijartzaile eta saio bikain askoa jaso abal izan zuen
J.A. Gezalaga, "Zaldubi" k.

Bertsolari goierritarrak obiturik gauzkate. Jai-jartzaile butsak dira. Egingo zituzten balako makina bat saio, baina guk burrengo hauetxek bakarrik aukeratu orain arte. "Bertsolari" aldizkari batetik bartu ditugu.

Xabier Zeberio apaiza zen; Patxi Iraola aitapontekoa; Juan Inazio Begiristain nobiua; Mikel Mendizabal nobiea; Florentino Goiburu amabitxia; eta Eusebio Igartzabal argazkilaria.



1. Zeberio (apaiza)

Aitaren, Semearen,
Espiritu Santu,
Boda hasiera doa
organu ta kantu,
Goiurin nahi ditut
bi gazte juntatu,
alkarri baietz esan da
zoazte kontentu.

2. Iraola (aitapontekoa)

Alaba ile gorri
buru tentekoa,
apaizan aurrean gaur
lehen egitekoa,
ezkontza hau ez da
derrepentekoa,
noizbait dala ere pozik
aitapontekoa.

3. Begiristain (nobiua)

Urte batzuk badira
biok gabiltzala,
izan nahi det zuretzat
gizon zerbitzala,
Mikela beti nahi nuke
nik zure itzala,
ta apaiz potolo honek

ezkondu gaitzala.

4. Mendizabal (nobiea)

Nobiotan pasea
gera hamar urte,
koroí zuriarekin
nator nolabaite,
hau emozioa
Joanixio maite,
korbata ondo jarri ta
formal porta zaite.

5. Goiburu (amabitxia)

Nik ere orain zerbait
beharko det esan,
ekarri nautilako
amabitxi gisan,
holako ezkontza bat
eginikan elizan
gero apartatzeko
ez dadila izan.

6. Igartzabal (argazkilaria)

Fotografo gisara
ni hemen nagola,
ta nahiko material
hemen badagola,
fin lan egin nahi nuke

al balitz inola,
zai dauzkat "Interviu",
"Lecturas" ta "Hola".

7. Zeberio

Zenbat kontseju eder
nik bi gazte jatorri,
neska rubia eta
mutil musu gorri,
gero batek honi utzi
ta bestiak jo horri,
reklamaziarekin
nigan ez etorri.

8. Iraola

Bedeinkatu itzazu
nahiz ez diran gazte,
eta gaurtik aurrera
senar da emazte,
sortuko al dute
frutuen bat eo beste!
Aitona eta amona
eingo al gaituzte!

9. Begiristain

Larrosaren antzeko
neskatxa liraina,
buru argia eta
gorputza arina,

uste det bazerala
neretzako haina,
petxu txiki xamarrek
daduzkatzu baina.

10. Mendizabal

Apaizaren galdera
ta errezo pila,
behatza luzaturik
ez nago trankila;
gizona zer zabiltz?
Hau da iskanbila,
praketa irikita
eraztunan bila.

11. Goiburu

Mutil polita da nik
ekarri detena,
eraztuna ahaztuta
etxetik ertena;
neska ez zazu izan
horrenbeste pena,
ekarririk baldin badu
beharrezkoena.

12. Igartzabal

Aita-amabitziez
zer esan ez dakit,
ederra ateratzeko

hain zailak baizaizkit,
nobiok aterako
nituen nik polit,
apaiz potolo horrek
utzi izan balit.

13. Zeberio

Soineko txuri zinta
traje ta korbeta,
andregaiak hasarre
daduka kopeta,
eraztunaren partez
ekarri du korneta,
falta baldin ba nik ere
badaukat gordeta.

14. Iraola

Alaba karinoa
nola hartu zinun?
Tontorra badu baina
horrek burua nun?
Praketa irikita
eraztunik ez inun,



Goierriko beretsolari taldea: Begiristain, Lazkao-Txiki, Xabier Zeberio, Patxi Iraola, Mendizabal, Florentino Goiburu, Altzo-Txiki, Nikolas Zeberio, Igarzabal eta Murua

auskalo azkenian
zer aterako digun.

15. Begiristain

Erastuna ahaztu ta
nik huts nabarmena,
saia det praketa
goia ta barrena,
ta bertan aurkitu det

trasterik onena,
argirik piztu gabe
ikusten duena.

16. Mendizabal

Luzatu eskua ta
luzatu besua,
ni naiz zure kabira
jeitsi den usua,
oraintxe, oraintxe
bete da plazua,
eman dezagun gure
lehenengo muxua.

17. Goiburu

Neskatz honek
badauzka
mila martingala,
lehenengo muxu eske
nola edo hala,
jotzen det gezurti
baten igoala,
nik ez det sinistatuko
lehenengua dala.

18. Igartzabal

Artza gisako bat hor
dadukate apaiz,
neskatxa txata da ta
mutila hi zer haiz?
Holako bodak baldin
tokatzen bazat maiz,
makina puskatze'ez
bada,
aberastuko naiz.

19. Zeberio

Amapontekoa hor
begira zoratzen,
faktura bait zaio
padrinoaia tokatzen,
bota hamar mila duro
hasi kontatzen,
gainera IVA-rik ere
ez dizut kobratzen.

20. Iraola

IVA gabe kontua
duela ekarri,
beldur naiz doblatuan
ez ote'un ezarri,
uste bat badala hau
haundi hainbat zerri,
aurki utziko gaitu
ez eleiz t'ez herri.

21. Begiristain

Aitapuntako t'apaiz
modu lotsagabez,
baina ezkonberriak
aiskidetasunez,
zuretzat hamahiru
txanpon
borondate onez,
har itzazu maitea
eraztunan orde.

22. Mendizabal

Hamahiru zilar txanpon
eman dizkit fin-fin,
erregali horretzek
barnuan egin min,

adi zazu senarra
behar dezu jakin,
ez pentsa zabilzenik
tratuan nerekin.

23. Goiburu

Senarrari ez eman
horrenbeste lotsa,
ta neska alai zazu
zedorren bihotza,
nahiz hamahiru dirutan
egin gaurko ezkontza,
gero zuretzako da
gizon horren poltsa.

24. Igartzabal

Nere estudiora
orain goazela,
entzun neskatz hango
zuk dezun papela,
eskatzen dizut arren
jarri zaitezela
lehenngoan Marta
Sanchez
jarri zan bezela.

25. Zeberio

Uste det bete dala
zuen desua,
eta firmatzea da
obligazua,
honekin bukatzen da
eleiz funtziaua,
eta hartu zazute
bedeinkazua.

ARGIAREN HARPIDE IZAN NAHI DUT:

IZEN DEITURAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

P.K.: TFNOA:

HERRIALDEA:

BANKUA/AURREZKI KUTXA:

SUKURTSALA:

KONTUAREN ZENBAKIA:

*Irakur biharko prentsa
gaurtik*

Industrialdea, 1-2 pabiloiak

20160 Lasarte-Oria

Tfnoa: (943) 37 15 45 - (94) 424 46 63

Faxa: (943) 36 10 48

○ HARAKINAREN

HANKAK

Maribel piskanaka edadean bazihoan aurrera eta amak bere konfiantza adierazi nahi zion, enkargutara bidaliz. Egun batean harategira bidali zuen.

Zoaz harategira eta begira ezazu ea harakinak txerri hankak badituen.

<Handik hamar minututara hemen da berriro neskatoa.

Ama, ezin izan dizkiot ikusi, katuskak jantzita zeramazkien eta.

○ ETXERA NORK

ERAMAN

Joxe honek, izugarritzko zepe-linak harrapatzeaz gain, arpajotzeko ere talentu ederra omen zuen. Eta han ari zen gau batean oihuka.

Nege exera egamaten nauenari bost mila dugu emango dizgiot! Exera egamaten nauenagi bost mila dugu emango dizgiot!

Hainbeste zalapartarekin jende mordoska bat hasi omen zen Joxeren bueltan, gizon hark zer ote zuen harritu samar. Taldetik bat atera eta:

Beno bada, eramango zaitut. Baina non bizi zara?

Negonek banegi, ez nuge diru hori esgeinigo!

○ HONDARTZAKO

BEROA

Neska eta mutila, elkar ezagutu berriak, hondartzara joan dira eguzkia hartzeko asmoz. Neska bikini ttiki-ttiki bat jantzirik, eta mutila berriz frakak eta alkondara jantzita.

Jon, ez al duzu berorik hainbeste arroparekin?

Izugarria, bai. Alkondara erantziko dut.

Hori dinamita, hori, uuufal! -dio neskak mutilaren musku-luak ikusiz.

Ordu laurden bat berandua-go:

Jon, ez al duzu berorik galtza lodi horiekin?

Arrazoi duzu, Elena. Kenduko ditut.

Hori dinamita, amatxo mai-tea... dio neskak mutilaren zango indartsuak ikusiz.

Handik beste ordulaurden batera:

-Jon, ez al duzu berorik kant-zontzilo haundi horiekin?

-Hala da, bai. Kendu egingo ditut kuleroak ere.

Azkenean larrugorritan geratu da mutila, bere gorputz indartsua erakutsiz. Eta neskak:

-Ai, Jon, hori metxa txikia

hainbeste dinamitarentzakol

○ "Y" BASKA LAZKAON

Benetan, ez da txistea. Lazkaoko Estankoa bi lagun, orain dela oso gutxi. Sesioa. Euskaraz badela "ñ"rik eta ez dela "h"rik, betikoa.

Sandiak Urliari: "Y" ere badek euskeran.

Isilik egon hadi, ximaurre!,—Urliak.

Periodikuan ikusi diat gaur, Euskal "Y" aprobata diate.

Periodikua eskatu Berendia tabernariari eta periodiku horrekin kopeteko ematen dio Sandiak Urliari:

Portadan. Ikustak, hemen zekarrek!

"Borrell aprueba la "Y" vasca".

Parre algarak estankoa! Lurretik jendea!

ZAKILIXUT



© Olariagak

KAKKU



Mit

INAZIO ARRIETA

- Pintura eta Papereztatuen berezitasuna
- Garbigaidenda eta Lurrindegia

Santa Maria, 35 ORDIZIA 88 19 02

AMAIA

Edergintza

Santamaria Kalea, 22 ORDIZIA. Tfnoa: 88 63 20

Izokinen entsalada epela, muxilen binagreta erarako lekekin

2 lagunentzat:

- 200 gr. izokin preskoa.
- 200 gr. tamaina oneko muxilez.
- 100 gr. leka;
- 50 gr. tomate, "dado" eran.



*Juan Rubiok emana. Rubioren
Jatetxea. Beasain.*

Elaborazioa: Luzetaka, tira-moduan ebakiak izan diren lekak egosi, denbora gutxian, olio eta gatzarekin, berde

kolorekoak atera daitezten.

Ur gazitan piska bat "eskalfatuz", azala ken tomateari eta "dadoak" egin.

Izokin solomo batetik xerratxoak atera eta pasara bat eman zartagi beroan olio piska batekin. Minutu bana alde bakoitzetik.

Beste zartagi batean olio pittin bat jarri eta muxilak salteatu, irin apur bat boteaz saltsa "ligatze"arren eta sagardo-ozpin txorrotada bat.

Plateraren montajea: Plater-erdian lekak eta tomatea jartzen dira, beraien gainean montatuz izokin-xerrak "izar" itxuran. Ertz guztietan zartagien genituen xerrak jarri. Zartagian genuen binagreta ixuri gainera eta platera prest dago. On egingo al dizue modutsoko plater onek!

• Gastronomia •

Ondo jateko eta hobeto edateko...

Urbitarate Sagardotegia

Garai batean ere izan ziren sagardotegiak Goierrin (edozein baserri sagardotegi), eta orain ere badira, Ikaztegietan eta Legorretan, esaterako. Baina Goierriren bihotzeraino ez zen iritsi halakorik orain-aresti arte.

Ireki berria da Ataungo Ergoiena auzoan, San Gregoriotik aurrera eta Kaxeta baino lehen, Urbitarate Sagardotegia. Eta aurreikuspen guztiak gaudituta dabilta, ez diote jendeari aurre-hartzen, boom bat alegia!

Bi erreken artean dago eraikia aintzinako estiloa errespetatuz, ingurugiroarekin armonian, arkitektura herrikoi hutsa, Urbitarate etxea. Nagusiek, Demetrio eta Itziar amezketarrek ilusio guztia jarri dute bertan, dena berritu, harria atera, egurretan haritza nagusi eta lurra antigoaleko itxuran, baserri giroa mantendu nahi izan dute. Urtebeteko lanak ia.

Lehenagoko era zaharrean egiten dute lan, nahi duenak nahi duena ekar lezake, haragi gordina, e.a. bertan egin eta jateko. Usarioei eutsiz, bakailu tortila ematen dute eta gaurko era modernoko



bakailu "takoak" piper berdeekin baita ere. Txuletak eta saiheskiak, bertako eta kanpoko produktuak.

Etxeko nagusia sagardotegizalea izan da gaztetatik eta, gogokoa zuenez giro hori, sagardogile bihurtu da. Sagardo honek 3.000 litro ditu Ataungo sagarretik; Idizabalgotik 7.000; Hernanikotik 7.000 eta gainontzekoa, gutxi, portzenta bat Normandikoa eta asturiarra beste bat


Jendea ikaragarri gustora dago sagar-

doaren zaporearekin. Dituen sei kupelak diferente-xamarrek dira ordea nagusiarrentzat. Bi kupel ditu itxirik, baina jendea edatera dator eta ezin du eraman itxirik edukitzeak. Kupelak 3.200 l.-ko kapazidadekoak dira: hiru kupel berri eta hiru zahar (50 urtetik gorakoak), Murtxante eta Hernanitik ekarritakoak. Badu sagardogileak konturik barrikak direla eta.

Berak dioenez, "zaila duk jendearen gustoa egitea, baina asma zitekek. Ohitura asko aldatzen ari dira, eta zutikakotik eseritzera pasa gaituk. Emakumea asko ari da sartzen".


Elegante asko dena oraingoz, eta prezioak, berriz, beti ere moduan. Pertsona batek jan lezake ondo eta edan hobeto 2.000 pezeta inguru horretan, zutik ala eseririk. Errestorante baten aldean, jendea bertara gehien erakartzen duena opor- giroa da. Giro izaten da han!

Urbitarate Sagardotegia
Ergoiena auzoa, Ataun.
Enkarguak: 888331
Jon Belarra



Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.
-
-
-



kutxa

• gipuzkoa
• donostia kutxa
•
• caja gipuzkoa
• san sebastián
•